


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



**Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado
Osakidetza-Servicio Vasco de Salud**

2020





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Pertsonaleko gastuak.....	10
III.2 Kontratazioa.....	12
III.3 Onkologikoa Fundazioarekiko hitzarmena	13
IV. URTEKO KONTUAK.....	14
IV.1 OSAKIDETZA	14
IV.2 OSATEK SA.....	20
ERANSKINAK	25
A.1 Izaera eta araudi ezargaria.....	25
A.2 Pertsonaleko gastuak.....	27
A.3 Kontratazioa.....	30
A.4 OSATEK SA.....	33
ALEGAZIOAK	37



ABREVIATURAS	53
I. INTRODUCCIÓN.....	53
II. OPINIÓN.....	57
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	57
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	57
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	58
III.1 Gastos de personal	58
III.2 Contratación	60
III.3 Convenio Fundación Onkologikoa.....	61
IV. CUENTAS ANUALES	62
IV.1 OSAKIDETZA	62
IV.2 OSATEK, S.A.....	68
ANEXOS	73
A.1 Naturaleza y normativa aplicable.....	73
A.2 Gastos de personal	75
A.3 Contratación	78
A.4 OSATEK, S.A.....	81
ALEGACIONES	85

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 10a

Vitoria-Gasteiz, a 10 de octubre de 2022



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

BEEAP	Botere Esleitzaille Ez Administrazio Publiko.
EA	Esparru-akordioa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EKB	Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
EM	Erresonantzia Magnetikoa.
EPE	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
INSALUD	Osasuneko Institutu Nazionala.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa.
UO	Unibertsitate Ospitalea.
ZEI	Zerbitzu Erakunde Integratua.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) hura arautzen duen 1/1988 Legean eta Lanerako Urteko Programan ezarritakoari jarraikiz, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren (aurrerantzean, Osakidetza) Urteko Kontuen fiskalizazio txostena mamitu du, 2020ko ekitaldiari buruzkoa, eta honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, dirulaguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasunari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemai eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Berebat, Osatek SA ere fiskalizatu dugu, Osakidetza kapital sozialaren % 100eko jabetza duen sozietate publikoa. Sozietatearen helburua da euskal osasun- eta gizarte-sistemari laguntzeko zerbitzuak ematea eta hornitzea, bereziki korporatiboak diren edo goitekologiako prozedurak eskatzen dituzten zerbitzuak; eta irakaskuntza eta ikerketa bideratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-politika orokorraren esparruan zehazten diren erregimen eta baldintzekin.

Gainera, kanpo enpresek egindako Osakidetza eta Osatek SAREN urteko kontuen eta aurrekontua eta legea betetzen dutelako auditoria txostenak euskarritzen dituzten lan paperak ere aztertu ditugu. Berebat, aplikagarria den legezko araudia bete izanari buruz Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenak ere aztertu ditugu.

Fiskalizazio lanak sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu dira eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia euskarritzeko.

Osakidetza osasun gaietan eskumena duen EAEko Administrazio Orokorreko Sailari atxikia dago; berezko lege-nortasuna du eta jarduteko gaitasun osoa du osasun zerbitzuak emateko, bere baitako diren zerbitzu erakunde publikoen bitartez, berezko lege-nortasunik ez duten arren, kudeaketarako autonomia dutenak.

2020ko abenduaren 31n, Erakunde Zentral, Larrialdi eta Transfusio eta Giza-ehunen Euskal Zentroaz gain, 13 zerbitzu erakunde integratu "ZEI", osasun mentaleko 3 zentro eta 2 ospitale daude:

- Nagusiak: Araba, Bilbo-Basurto, Donostialdea eta Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta Zerbitzu Erakunde Integratuak.
- Eskualdekoak: Barakaldo-Sestao, Barrualde-Galdakao, Bidaso, Debarren, Debagoien, Goierri-Urola Garai, Tolosalde, Uribe eta Arabako Errioxa Erakunde Sanitario Integratuak; baita, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea ZEIak.



- Egonaldi luzekoak: Gorliz, Leza (Arabako Errioxako ZEIn) eta Santa Marina.

Gainera, Onkologikoarekin 2018ko abenduaren 27ko atxikimendu-hitza sinatu zenetik, haren osasun-zentroa Osakidetzaren erakundeko kide da atxikitako zentro gisa, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera (3 urteko iraupenarekin, isilbidez urtebeteko aldirako luzatu ahal izango dena), atxikimendu-hitza espezifikoak sinatzeko baldintzei eta prozedurari buruzko irailaren 4ko 127/2018 Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuz. Hitza hori urtero sinatzen den programa-kontratu batekin gauzatzen da. Administrazio Kontseiluak 2019ko otsailaren 5ean hartutako erabakiaren bidez (uztailaren 3ko 100/2018 Dekretua eguneratzen du), Osakidetzako zerbitzu-erakundeen zerrendan sartu zen.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Osakidetzako zerbitzu-erakundeek kontratu txiki gisa izapidetu dituzte produktuen zenbait hornidura eta ondasun higigarriak eta inbertsioak, eta kontratuaren xedea zatikatu dute; horiek guztiek dagokion prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeen. Sendagaien hornidurari dagokionez, akats hori 19,7 milioi euroren erosketetan hauteman da, aztertutako 30,5 milioi euroetatik, 84 milioi euroren beste hornidura batzuetan, aztertutako 117,3 milioi euroetatik, eta 1,8 milioi euroren inbertsioetan, aztertutako 6,6 milioi euroetatik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-txostenetatik ondorioztatu denaren arabera (ikus A.3).
2. Onkologikoko osasun-zentroak, Botere Esleitzaille Ez Administrazio Publiko den aldetik, ez du bete 4,9 milioi euroren hornidura-erosketetan eta 2,3 milioi euroren zerbitzu-prestazioetan aplikatu beharreko kontratazio-prozedurak, hurrenez hurren.

Epaitegi honen ustetan, Osakidetzak eta Osatek SAk, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete dute 2020ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Osakidetzaren Egoeraren balantzeak ez ditu barne hartzen Insaludetik datorren langileria estatutario sanitario ez fakultatiboaren erretiro osagarriak, ez Tuberkulosiaren kontrako Patronatuaren langileria funtzionarioarenak, ez eta 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu zen Basurtoko Ospitaleko hainbat langilerena ere. Obligazio hauek erregistratzeko Osakidetzak kutxa irizpidea darabil nagusiki eta 2020an gastu modura ekitaldian ordaindutako 6 milioi euroak erregistratu ditu.

Ezargarria den finantza informazioko arau-esparruari jarraiki, pentsio osagarriek eta antzeko beste batzuek sortutako pasiboak azterketa aktuariaren bitartez zenbatetsi behar dira eta sortzape printzipioaren arabera erregistratu. Osakidetzak aditu independenteek egindako azterketa aktuariala du; azterketa honek haren pasibo aktuarialak 88 milioi euroan kuantifikatu ditu 2020ko abenduaren 31n; Osakidetzak, ordea, ez du dagokion zuzkidura erregistratu (ikus A.2).

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako salbuespenaren ondorioak alde batera, Osakidetzaren eta Osatek SAren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2020ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 PERTSONALEKO GASTUAK

2020an indarrean dauden 21 antolakundearen egiturazko plantilla guztira 27.700 lanpostuk osatzen dute. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 99 langile finko eta bitartekoen espedienteak aztertu ditu (3 ZEItan dauden 1.453 lanpostuetatik % 6,8 dira), baita behin-behineko estatutupeko langileen 34 espediente eta zuzendaritzako postuen 11 espediente ere, eta honako akats hauek azpimarratu ditu:

- 13 espedientetan gainditu egin da zerbitzu eginkizunetarako finkatutako bi urteko epemuga eta maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko epemuga. Beharrezko diren plazak sortuta egiturazko plantilla egokitzea gomendatzen da, egitekoen asignazioak ez daitezen luzatu Osakidetzako Lan baldintzen akordioetan finkatutako denbora-mugaz haratago.
- Ez dago jasota organo eskudunak aldi baterako zenbait osagarri dagokionez egindako zerbitzu jakin batzuk justifikatu edo onartu dituenik, hala nola: guardia medikoak, maila jasoagoko zereginak, txandakotasuna, gaueko lana, jaiegunak, lokalizazioa, autokontzertazioa, etab., aplikatzeoak zaizkien berariazko erregulazioen arabera. Lanpostuak aldi baterako betetzeko (lan-poltsak) eta lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko egindako prozeduren justifikaziorik ere ez dago. Giza baliabideen aplikazio informatikoan langile-espediente bakoitzeko beharrezko informazio justifikagarri guztia erregistratzea gomendatzen da, langile bakoitzaren egiazko egoera gaurkotuaren arabera datuak egiaztatze bide emango duena.
- Nominak berrikustean ikusi da badirela zenbait lanpostu dagokion plantilla funtzionalean era horretan ageri ez direnak, edo Entearen lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan. Plantilla funtzionalak -urtero onartzen baitira-langileen egoera eta funtzio egiazkoetara egokitzea gomendatzen da, 186/2005 Dekretuan aurreikusitako lanpostuak aintzat hartuta, eta behar berrietara gaurkotzea.
- Osatek-en produktibitate-osagarriaren kontzeptuak 2020an 3,9 milioi euroren gastua eragin du, hau da, soldata eta ordainsarien zenbatekoaren % 28,2. Osagarria jasotzeko informatutako miaketen kopurua (1.599 erradiologoaren kasuan, eta txandako 10 gainerako langile asistentzialen kasuan) ez da eguneratu 2009az geroztik, eta informatutako miaketen batez bestekoa nabarmen handitu da azken urteetan:

Informatutako miaketen kopurua

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Erradiologo/urteko.....	2.979	3.093	3.055	2.888	3.037	(*) 2.453
Gainerako langileak/txandako..	18	18	18	18	18	(*) 15

(*) Covid-19ak eragindako beherakada

Aurreko fiskalizazioetan adierazi den eta 2007-2009 akordioek xedatzen duten bezala, aipatutako parametroak (informatutako miaketen kopurua) aldatu egin beharko dira erabilitako ekipoen prestazio eta eraginkortasun handiagoak konpentsatzeko; beraz, lehen aipatutako zifrak eguneratzea eta produktibitateagatikozko pizgarriaren kalkulua benetako batez besteko zifretara egokitzea gomendatzen da.

- Osatek SAn 2020an ordaindutako ordainsariei dagokienez, aurreko fiskalizazio-txostenetan azaleratu genituen zuzendu beharrekoek bere horretan dira: lurraldeko arduradunei gainerako erradiologoaren aldean miaketa bakoitzeko ordaindutako zenbatekoan dagoen aldea, erradiologo baten oinarritzko soldata hitzarmeneko tauletara ez egokitzea eta teknikariei oinarritzko soldataren % 2ren urteko ekoizpen osagarria ordainsari finko modura ordaintzea; horrek praktikan indarreko ordainsari-tauletan finkatutako ordainsaria gaingitzen duen kopurua jasotzea dakar.
- Gainera, Osatek SAn hitzarmenak “Antzinasun” kontzeptuan izaera kualitatibo eta kuantitabo aldetik hobekuntzak jasotzen ditu; baita zenbait plusetan ere, EAEko Administrazio orokorrari eta erakundeen administrazioari, eta Osakidetzari zehazki, ezargarria zaionarekiko. Gomendagarria litzateke ahal den neurrian nominako kontzeptuak berdindu eta gaurkotzea eta oro har, indarreko Hitzarmenaren baldintzak, 2007an izenpetutakoa baita.
- Osatek SAn badira 2020ko abenduaren 31n produkzioaren gorabeheren ondorioz luzatu diren aldi baterako kontratuak eta horiek desitxuratu egiten dute hasierako kontratu mota. Gainera, aldi baterako kontratuak kateatzea lotura mugagabe ez finko bihur daiteke, harik eta lanpostua arauz betetzen den arte. Txosten hau idatzi dugun datan gauzatzeke dago 2020ko aurrekontuan onartutako egiturazko plantilla betetzeko deialdia.
- Onkologikoko osasun-zentroko langileen soldata-igoera, 2020an, Osakidetzaren urte horretarako kontratu-programan aurreikusitakoa baino % 0,25 handiagoa izan da.
- Aztertutako 24 espedienteetatik, Onkologikoa osasun-zentroko 5 bitarteko kontratutan eta 3 obra- edo zerbitzu-kontratutan ez dira aplikatu Onkologikoa Fundazioarekiko hitzarmenaren 17.2 klausulan aurreikusitako langileak kontratatzekeko prozedurak, eta ez dira jaso hautaketa-prozesuan egindako jarduerak, zehazki, erabilitako indarreko lan-poltsei, Osakidetzakoei edo bertakoei dagokienez.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 KONTRATAZIOA

- Osakidetzako aztertutako espedienteetan (ikus A.3) honako gorabehera hauek azalera dira:
 - Guztira 34,9 milioi euroan esleitutako 23 espedientetan -16 hornidurakok, 5 zerbitzukoak eta 2 zerbitzuen emakidakoak (61etik 79ra eta 81etik 84ra bitarteko espedienteak), ez da justifikatzen lizitazioko oinarritzko aurrekontua merkatuko prezioetara egokitzen dela, eta ez dira kostuak eta bestelako gastuak xehakutzen.
 - Guztira 18,4 milioi euroan esleitutako zerbitzuetako 7 espedientetan (61, 62, 63, 64, 67, 72 eta 79 zk. espedienteak) ez da jaso prezio irizpidea balioztatzeke baliatutako formularen justifikazioa.
 - Guztira 5,3 milioi euroan esleitutako hornidurako 3 eta zerbitzuko 2 espedientetan (66, 71, 73, 81 eta 83 zk. espedienteak), aurreikusitako aldaketek ez dituzte modu argi eta zehatzean, zalantzarik gabe, zehaztapenez eta objektiboki egiaztagarriak izateko baldintzak betetzen.
 - 2,4 milioi euroan esleitutako hornidura-espediente batean (66 zk. espedienteak), balio zenbatetsiaren kalkuluak ez du aurreikusitako aldaketen zenbatekoa jasotzen.
 - 1,5 milioi euroan esleitutako hornidura-espediente batean (76. espedienteak), balio-judizio baten mende dauden esleipen-irizpideen definizioa eta ebaluazioa oso orokorrak dira, ez baitira zehazten baloratu beharreko alderdi zehatzak. Txosten teknikoak eta, ondorioz, esleipen-ebazpenak ez dituzte justifikatzen aurkeztutako eskaintzei esleitutako puntuazioak.

- Onkologikoa osasun-zentroko kafetegiaren eta vending makinaren errentamendu-kontratua, 2017ko abuztuaren 9koa eta 2020an mugaeguneratua, beste 3 urtez luzatu da isilbidez, kontuan hartu gabe SPKLn xedatutakora egokitzeko atxikimendu-hitzarmena sinatu izanaren ondorioz dagokion kontratu-erregulazioa.

- Onkologikoak ez diren profesional pribatuekin egindako kanpo-kontsulter 4 errentamendu-kontratu daude indarrean. Onkologikoa Fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, aldi baterako mantendu zitezkeen, hitzarmena sinatu aurretik hartutako kontratu-betebeharrek irauten zuten bitartean; ordea, 2019an aurreabisu bidez deuseztatu behar ziratekeen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Ekonomia-kontrolerako bulegoak aztertutako kontratazio espedienteak berrikusi ditugu eta honako gorabehera esanguratsu hauek nabarmenduko ditugu:
 - Donostialdeko ZEiren hemodinamikako materiala erosteko espedientean, 1,5 milioi euroan esleitutakoan, baldintza-agiriak aukera ematen du lote bakoitza partekaturik esleitzeko 1,3 milioi euroan esleitutako 9 lotetan.
 - Donostialdea ZEIk izapidetutako 13 espedientetan, 5,3 milioi euroan esleitutakoetan, kontratuaren klausula espezifikoetan ageri den lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak ez du BEZa barne hartzen.
 - 6 milioi euroan esleitutako 3 ZEItako 9 espedientetan, pleguaren balio zenbatetsia ez da SPKLn aurreikusitakoaren arabera kalkulatu.
 - 9 ZEItako 25 espedientetan, 11,4 milioi euroan esleitutakoetan, pleguek ez dute ezartzen neurriz kanpo baxuegitzat jo beharreko eskaintzak identifikatzeko parametrorik.
 - 4 ZEItako 11 espedientetan, 4,8 milioi euroan esleitutakoetan, esleipen-prozesuan jarraitzeko bete beharreko gutxieneko atalaseak ez dira aplikatzen irizpide kualitatiboen multzoari dagokionez, SPKLk arautzen duenaren arabera.
 - Esklusibotasunagatik publikotasunik gabeko espediente negoziatu gisa izapidetutako 3 ZEItako 5 espedientetan, 1,3 milioi euroan esleitutakoetan, ez da behar bezala egiaztatu esklusibotasun hori.
 - Gainditu egin da aztertutako 195 luzapen-espedienteetatik 130etan legezko gehieneko muga, 36tan pleguetan aurreikusitako luzapen kopurua, eta 43tan hasierako kontratuaren ezaugarriak aldatu dira.

III.3 ONKOLOGIKOA FUNDAZIOAREKIKO HITZARMENA

Osasun sailaren eta Onkologikoa Fundazioaren artean 2018ko abenduaren 27an sinatutako hitzarmenaren ondorioz, osasun-zentroa Osakidetzari atxikitako zentro gisa gehitu da, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko otsailaren 5eko Erabakiaren arabera.

Alabaina, atzerapena izaten jarraitzen du hitzarmenean jasotako akordio batzuen betearazpenak, bai eta hura abian jartzeak ere, zehazki, SPKLra egokitzea, langileak kontratatuzko prozeduretara egokitzea, Osakidetzako informazio-, laguntza-, finantza- eta kontabilitate-kudeaketako sistemetan integratzea eta kudeaketa klinikoko unitateak zerbitzuan jartzea. Gomendagarria litzateke Onkologikoaren osasun-zentroarekin batera hainbat neurri hartzea, hitzarmen horretan aurreikusitako neurriak ahalik eta lasterren abian jartzeko.



IV. URTEKO KONTUAK

IV.1 OSAKIDETZA

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	2020	2019
AKTIBO EZ-KORRONTEA	1.069.793	1.029.628
Ibilgetu ukiezina.....	10.520	10.157
Aplikazio informatikoak.....	10.520	10.157
Ibilgetu materiala.....	1.054.172	1.014.064
Lursailak eta eraikuntzak.....	816.390	818.318
Instalakuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala.....	166.605	129.980
Indarreko ibilgetua eta aurrerakinak.....	71.177	65.766
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak.....	4.353	4.353
Ondare baliabideak.....	4.353	4.353
Epe luzeko inbertsio finantzarioak.....	748	1.054
Hirugarrenei kredituak.....	748	1.054
AKTIBO KORRONTEA	462.117	432.434
Izakinak.....	95.507	49.267
Botikako produktuak.....	27.698	24.015
Kontsumoko osasun materiala.....	63.860	22.874
Bestelako hornidurak.....	3.949	2.378
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.....	263.490	246.561
Salmenta eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak.....	9.885	3.668
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	250.935	237.699
Askotariko zordunak.....	678	3.175
Langileria.....	1.992	1.918
Zergengatiko aktiboak.....	-	101
Epe laburreko finantza inbertsioak.....	603	623
Bestelako aktibo finantzarioak.....	603	623
Aldizkatzeak epe motzera.....	370	431
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz.	102.147	135.552
Diruzaintza.....	1.093	2.931
Beste aktibo likido baliokide batzuk.....	101.054	132.621
AKTIBOA, GUZTIRA	1.531.910	1.462.062



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31N		Euroak milakotan	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2020	2019
ONDARE GARBIA		1.103.282	1.080.670
Funts propioak.....		18.490	18.490
Funts soziala.....	18.490		18.490
Bazkideen ekarpenak.....		134.249	134.249
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		(114.610)	(115.424)
Geldikina.....	(114.610)		(115.424)
Ekitaldiko emaitza.....		-	815
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak.....		1.065.153	1.042.540
PASIBO EZ-KORRONTEA		10.744	11.548
Epe luzeko hornidurak.....		2.918	2.816
Bestelako hornidurak.....	2.918		2.816
Epe luzeko zorrak.....		7.826	8.732
Beste finantza pasibo batzuk.....	7.826		8.732
PASIBO KORRONTEA		417.884	369.844
Epe motzeko zorrak.....	62.618		62.800
Beste finantza pasibo batzuk.....	62.618		62.800
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b.	355.015		306.793
Hornitzaileak.....	122.995		108.007
Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartutakoak.....	23.563		17.536
Askotariko hartzekodunak.....	1.432		2.029
Langileria.....	9.076		8.348
Bestelako zorrak administrazio publikoekin.....	197.949		170.873
Aldizkatzeak epe motzera.....		251	251
ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA		1.531.910	1.462.062



GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	2020	2019
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifratik zenbateko garbia	3.176.449	2.946.046
Zerbitzu-emakida	3.176.449	2.946.046
Hornidurak	(866.436)	(777.075)
Botika produktuen kontsumoa.....	(313.037)	(299.323)
Osasun materialaren kontsumoa.....	(363.110)	(300.127)
Beste hornikuntza batzuen kontsumoa	(25.822)	(24.079)
Kanpoko beste gastu batzuk.....	(163.861)	(153.774)
Lehengaien eta bestelako horniduren narriadura	(606)	228
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	34.849	29.195
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	33.556	27.383
Ekitaldiaren emaitzara txertatutako ustiapeneko dirulaguntzak	1.293	1.812
Pertsonaleko gastuak	(2.161.287)	(2.019.404)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.671.806)	(1.571.302)
Gizarte kargak	(489.481)	(448.102)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(183.306)	(177.661)
Kanpoko zerbitzuak.....	(172.512)	(168.066)
Tributuak.....	(588)	(479)
Merkat. eragiketengatik galerak, narriad. eta hornig. bariozioa	(4.298)	(2.902)
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	(5.908)	(6.214)
Ibilgetua amortizatzea.....	(48.796)	(51.355)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte eta beste	48.808	51.438
Ibilgetua besterenganatzeagatiko narriadura eta emaitza	(38)	(109)
USTIAPENAREN EMAITZA	243	1.075
Balio negoziagarri eta bestelako finantza baliabideen sarrera finan.	5	5
Hirugarrenetikozorreatatik finantza gastuak	(248)	(265)
EMAITZA FINANTZARIOA	(243)	(260)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	-	815
ERAG. JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIAREN EMAITZA	-	815
EKITALDIKO EMAITZA	-	815



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2020	2019
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	-	815
ONDARE GARBIAIN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERAK ETA GASTUAK		
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	71.420	100.507
ONDARE GARBIAIN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	71.420	100.507
GALEREN ETA IRABAZIEN KONTURA TRANSFERENTZIAK GUZTIRA		
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	(48.808)	(51.438)
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(48.808)	(51.438)
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	22.612	49.884

ONDARE GARBIAIN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, ABENDUAREN 31N	Euroak milakotan					
	JASOT. DIRU-LAG.					
	FUNTS SOZIALA	BAZKIDEEN. GELDIKINA	EKARP.	EKIT. EMAIT.	DOHAINT. ETA LEGAT.	GUZTIRA
2018KO EKITALDIKO AZKEN SALDOA	18.490	18.933	-	(134.357)	993.471	896.537
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	-	815	49.069	49.884
Ondare garbiaren bestel. aldaketak	-	(134.357)	134.249	134.357	-	134.249
2019KO EKITALDIKO AZKEN SALDOA	18.490	(115.424)	134.249	815	1.042.540	1.080.670
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	(1)	-	-	22.613	22.612
Ondare garbiaren bestel. aldaketak	-	815	-	(815)	-	-
2020KO EKITALDIKO AZKEN SALDOA	18.490	(114.610)	134.249	-	1.065.153	1.103.282



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2020		2019
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	20.212		(164.999)
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	-		815
Emaitzari doikuntzak.....	2.808		1.936
Ibilgetua amortizatzea	48.796	51.355	
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak	4.904	2.674	
Zuzkiduren aldaketa	436	788	
Dirulaguntzak egoztea.....	(51.609)	(53.250)	
Baja eta besterenganatzeengatiko emaitzak.....	38	109	
Sarrera finantzarioak.....	(5)	(5)	
Gastu finantzarioak	248	265	
Kapital korrontean aldaketak	17.673		(167.450)
Izakinak	(46.845)	(214)	
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	15.849	(58.424)	
Beste aktibo korronte batzuk	60	281	
Hartzek. eta ordain. bst kontu b.	47.495	8.053	
Beste pasibo korronte batzuk.....	1.449	(116.779)	
Arruntak ez diren beste pasibo batzuk.....	(335)	(367)	
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	(269)		(300)
Interesen ordainketak	(274)	(305)	
Interesen kobrantzak	5	5	
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(88.881)		(73.656)
Ordainketak inbertsioengatik	(90.176)		(75.034)
Ibilgetu ukiezina/materiala	(89.454)	(73.671)	
Bestelako aktibo finantzarioak	(722)	(1.363)	
Desinbertsioengatiko kobrantzak	1.295		1.378
Bestelako aktibo finantzarioak	1.295	1.378	
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	35.264		242.756
Ondareko baliabideengatik kobrantzak eta ordainketak.....	36.144		243.661
Ondare baliabideen jaulkipena.....	-	134.249	
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak.....	36.144	109.412	
Finantza pasiboaren tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak.....	(880)		(905)
Beste zor batzuen itzulera eta amortizazioa	(880)	(905)	
TRUKE TIPOEN BARIAZIOEN ONDORIOA	-		-
ESKUDIRUEN EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(33.405)		4.101
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	135.552	131.451	
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	102.147	135.552	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITAL-AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2020KO ABENDUAREN 31N (*)

Euroak milakotan

INBERTSIOAK/FINANTZAKETA	AURREKONTUA				ALDEA	%
	HASIERAK.	ALDAK.	EGUNGOA	GAUZATUA		
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu negatiboak.....	-	-	-	14.936	(14.936)	-
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera	69.702	19.700	89.402	89.304	98	% 100
Ibilgetu ukiezina	5.155	169	5.324	3.636	1.688	% 68
Ibilgetu materiala.....	64.547	19.531	84.078	85.668	(1.590)	% 102
Finant. inber. igoera eta ondare baliab. jaits.....	3.100	-	3.100	33	3.067	% 1
Pasibo finant. baliab. jaits. (amortiz. itzulketa).....	-	-	-	1.336	(1.336)	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	72.802	19.700	92.502	105.609	(13.107)	% 114
Transf., dirulag., dohaint. eta jasot. legat.	69.702	2.224	71.926	71.420	506	% 99
Ondare baliab. igoera eta finantza inberts. jaits.....	3.100	-	3.100	606	2.494	% 20
Pasibo finantz. baliabideen murrizketa	-	-	-	178	(178)	-
Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia	-	17.476	17.476	33.405	(15.929)	% 191
FINANTZAKETA GUZTIRA	72.802	19.700	92.502	105.609	(13.107)	% 114

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2020KO ABENDUAREN 31N (*)

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA				ALDEA	%
	HASIERAK.	ALDAK.	EGUNGOA	GAUZATUA		
Pertsonaleko gastuak	2.065.790	96.000	2.161.790	2.161.287	503	% 100
Soldatak, lansariak eta antzekoak	1.606.104	66.240	1.672.344	1.671.806	538	% 100
Gizarte kargak eta beste	459.686	29.760	489.446	489.481	(35)	% 100
Funtzionamendu-gastuak.....	962.439	81.525	1.043.964	1.088.755	(44.791)	% 104
Hornidurak	789.079	81.525	870.604	913.491	(42.887)	% 105
Kanpoko zerbitzuak.....	172.686	-	172.686	172.513	173	% 100
Tributuak.....	649	-	649	588	61	% 91
Beste kudeaketa-gastu arrunt batzuk.....	25	-	25	2.163	(2.138)	% 100
Gastu finantzarioak.....	230	-	230	248	(18)	% 108
Erak. emateko dirulag. eta egin beharreko transf.....	3.809	-	3.809	3.744	65	% 98
GASTUAK, GUZTIRA	3.032.268	177.525	3.209.793	3.254.034	(44.241)	% 101
DIRU-SARR.						
Negozio zifratik zenbateko garbia	3.025.505	177.525	3.203.030	3.176.449	26.581	% 99
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	5.307	-	5.307	34.472	(29.165)	% 100
Transferentziak eta ustiap. dirulaguntzak	1.456	-	1.456	1.293	163	% 89
Sarrera finantzarioak.....	-	-	-	5	(5)	-
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu negatiboak.....	-	-	-	26.879	(26.879)	-
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitiera garbi..	-	-	-	14.936	(14.936)	-
SARRERAK, GUZTIRA	3.032.268	177.525	3.209.793	3.254.034	(44.241)	% 101

(*) Honekin baterako aurkezpenak Ekonomia Kontrolerako Bulegoak 9/2020 Zirkularren II. Eranskinean ezarritako eredu baliatu du. Gauzatutako kopurua Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren G67 aplikaziotik eskuratzen da, onartutako urteko Kontuez bestelako kontuen multzokatzeak egiten dituen.

ETORKIZUNEN KOMPROMISOEN EGIKARITZA 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

EGUNGO AURREKONTUA	GUZTIRA	2021			2022		2023		GAINERAKOA
		2021	2021	2021	2022	2022	2023	2023	
Lotua	18.473	18.179	18.179	18.179	294	-	-	-	
Egiteke	53.516	24.560	24.560	24.560	28.956	-	-	-	



IV.2 OSATEK SA

EGOERAREN BALANTZEAK ABENDUAREN 31N Euroak milakotan

AKTIBOA	2020	2019
AKTIBO EZ-KORRONTEA	10.386	10.997
Ibilgetu ukiezina.....	32	50
Aplikazio informatikoak.....	32	50
Ibilgetu materiala.....	10.348	10.935
Eraikuntzak.....	706	725
Instalak. tekn., makineria, tresneria, ibilg. eta best. ibilg. materiala ...	9.642	9.120
Indarreko ibilgetua eta aurrerakinak.....	-	1.090
Epe luzeko inbertsio finantzarioak.....	6	12
Hirugarrenei kredituak.....	6	12
AKTIBO KORRONTEA	6.859	8.127
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b.....	3.106	2.684
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak.....	25	21
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak.....	3.067	2.630
Langileria.....	14	33
Epe laburreko finantza inbertsioak.....	1	1
Eskud. eta beste aktibo likido baliokide batz.	3.752	5.442
Diruzaintza.....	3.752	5.442
AKTIBOA, GUZTIRA	17.245	19.124

Euroak milakotan

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2020	2019
ONDARE GARBIA	10.102	11.853
Funts propioak.....	7.709	9.020
Kapital.....	3.123	3.123
Erreserbak.....	5.897	5.896
Legezkoa eta estatutarioak.....	672	672
Beste erreserba batzuk.....	5.225	5.224
Ekitaldiko emaitza.....	(1.311)	1
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak.....	2.393	2.833
PASIBO EZ-KORRONTEA	756	894
Gerorat. zergarengatiko pasiboak.....	756	894
PASIBO KORRONTEA	6.387	6.377
Epe laburreko zorra.....	3.177	3.462
Merkat. hartzekod. eta kobratz. beste knt. b.....	3.210	2.915
Hornitzaileak.....	6	79
Askotariko hartzekodunak.....	264	163
Langileria/ordaintzeko dauden ordainsariak.....	1.656	1.350
Bestelako zorrak administrazio publikoekin.....	816	859
Bezeroei aurrerakinak.....	468	464
ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA	17.245	19.124



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2020	2019
ERAGIKETA JARRAITUAK		
Negozio zifratik zenbateko garbia	20.480	21.999
Zerbitzu ematea.....	20.480	21.999
Hornidurak	(806)	(856)
Lehengaien eta bestelako material ahikorren kontsumoa	(806)	(856)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	15	20
Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	15	7
Emaizara txertatutako ustiaketako dirulaguntzak	-	13
Pertsonaleko gastuak	(16.936)	(17.244)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(14.008)	(14.259)
Gizarte kargak.....	(2.928)	(2.985)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(2.251)	(2.347)
Kanpoko zerbitzuak.....	(2.231)	(2.326)
Tributuak.....	(20)	(21)
Ibilgetua amortizatzea.....	(2.437)	(2.022)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte eta beste	578	433
Ibilg. besterengan. narriadura eta emaitza	45	-
Beste emaitza batzuk	1	18
USTIAPENAREN EMAITZA	(1.311)	1
EMAITZA FINANTZARIOA	-	-
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(1.311)	1
ERAGIK. JARRAITUETATIK ERATOR. EKIT. EMAITZA	(1.311)	1
EKITALDIKO EMAITZA	(1.311)	1



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2020	2019
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	(1.311)	1
ONDARE GARBIAIN ZUZENEAN JASOTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA	-	1.230
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	-	1.550
Zerga aldatetaren erregistroagatik dirulaguntzak	-	52
Zerga ondorioa	-	(372)
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA	(440)	(329)
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak	(578)	(433)
Zerga ondorioa	138	104
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(1.751)	902

ONDARE GARBIAIN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, ABENDUAREN 31N	Euroak milakotan				
	ESKRITURAN JASOTAKO	JASOT. DIRU-LAG.,			
		KAPITALA	ERRESERB.	EKITALD EMAITZA	DOHAINT ETA BESTE
2018KO URTEAREN AZKEN SALDOA	3.123	5.811	85	1.932	10.951
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	1	901	902
Ondare garbiaren bestel. aldatetak	-	85	(85)	-	-
2019KO URTEAREN AZKEN SALDOA	3.123	5.896	1	2.833	11.853
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	(1.311)	(440)	(1.751)
Ondare garbiaren bestel. aldatetak	-	1	(1)	-	-
2020KO URTEAREN AZKEN SALDOA	3.123	5.897	(1.311)	2.393	10.102



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	2020		2019
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	96		1.298
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(1.311)		1
Emaitzaren doiketak	1.814		1.589
Ibilgetua amortizatzea	2.437	2.022	
Dirulaguntzak egozte.....	(578)	(433)	
Bajengatiko eta ibilgetua besterentzeagatiko emaitzak	(45)	-	
Kapital korrontean aldaketak	(407)		(292)
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	(422)	618	
Beste aktibo korronte batzuk	-	(1)	
Hartzek. eta ordain.. bst kontu b.	295	(1.881)	
Beste pasibo korronte batzuk.....	(285)	970	
Beste aktibo eta pasibo ez korronte batzuk.....	5	2	
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(1.786)		(3.721)
Ordainketak inbertsioengatik	(1.786)		(3.721)
Ibilgetu ukiezina	-	(36)	
Ibilgetu materiala.....	(1.786)	(3.685)	
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	-		1.550
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	-		1.550
ESKUDIRUEN EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(1.690)		(873)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	5.442	6.315	
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	6.752	5.442	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	AURREKONTUA			GAUZATUA	ALDEA	%
	HASIERAK.	ALDAK.	EGUNGOA			
INBERTSIOAK						
Inb. ukiezin, material, onib. eta besteen igoera	1.835	-	1.835	1.835	-	% 100
Ibilgetu ukiezina	-	-	-	-	-	-
Ibilgetu materiala.....	1.835	-	1.835	1.835	-	% 100
INBERTSIOAK GUZTIRA	1.835	-	1.835	1.835	-	% 100
FINANTZAKETA						
Ustiaketa jardueren eskudir. fluxu positiboak	1.835	-	1.835	95	1.740	% 5
Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia	-	-	-	1.691	(1.691)	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	1.835	-	1.835	1.786	49	% 97

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	AURREKONTUA			GAUZATUA	ALDEA	%
	HASIERAK.	ALDAK.	EGUNGOA			
GASTUAK						
PERTSONALEKO GASTUAK	17.151	-	17.151	16.936	215	% 99
Soldatak, lansariak eta antzekoak	14.025	-	14.025	14.008	17	% 100
Gizarte kargak eta beste	3.126	-	3.126	2.928	198	% 94
FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	3.282	-	3.282	3.057	225	% 93
Hornidurak	783	-	783	806	(23)	% 103
Kanpoko zerbitzuak	2.482	-	2.482	2.231	251	% 90
Tributuak	17	-	17	20	(3)	% 118
KOBR. KNTUEN IGOERA, ORDAINTZEKOEN MURR.	-	-	-	417	(417)	-
USTIAK. JARD. ESKUDIR. FLUXU POSITIBOAK	1.835	-	1.835	96	1.739	% 5
GASTUAK, GUZTIRA	22.268	-	22.268	20.506	1.762	% 92
DIRU-SARR.						
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBAT. GARBIA	22.253	-	22.253	20.480	1.773	% 92
USTIAPENENKO BESTELAKO SARRERAK	15	-	15	16	(1)	% 107
KOBR. KNTUEN IGOERA, ORDAINTZEKOEN MURR.	-	-	-	10	(10)	-
SARRERAK, GUZTIRA	22.268	-	22.268	20.506	1.762	% 92

ETORKIZUNEN KONPROMISOEN EGIKARITZA 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	GUZTIRA	2020	2021	2022	GAINERAKOA
EGUNGO AURREKONTUA	-	-	-	-	-
Lotua	-	-	-	-	-
Egiteke	-	-	-	-	-



ERANSKINAK

A.1 IZAERA ETA ARAUDI EZARGARRIA

Osakidetza ekainaren 26ko 8/1997 Legeak sortu zuen, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenak, osasun gaietan eskumena duen EAeko Osasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko Ente publiko modura; nortasun juridiko propioa du eta jarduteko gaitasun erabatekoa duen helburua betetzeko: osasun zerbitzuak hornitzea mendeko dituen zerbitzuetako erakunde publikoen bitartez.

Zuzendaritza-organo ditu administrazio-kontseilua eta lehendakaria, Osasun Saileko sailburuak betetzen duena.

Egiturari dagokionez, 2020an Osakidetza bere 21 zerbitzu erakundeez baliatu da (Osatek SA salbuetsita) funtzionamendurako, eta horiek jarduera gauzatzen dute autonomia ekonomiko finantzario eta kudeaketakoaren printzipioaren arabera; honenbestez, erakunde hauetako bakoitzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin nork bere kontratu-programa izenpetzeko gaitasuna du. Kontratu-programek izaera bereziko hitzarmenaren izate juridikoa dute eta horietan mugarrizten dira, besteak beste, erakundeek eskaintzen dituzten osasun zerbitzuetan jardueraren osotasunezko bolumenaren balioespina, eskagarri den kalitate mailarekin batera eta dagokion ordain ekonomikoa.

2011ko urriaren 3ko Erabaki bitartez, Osakidetzako Administrazio-kontseiluak antolakuntza-molde berri bat abiarazi zuen Zerbitzu Erakunde Integratuak "ZEI" sortuta, lehen mailako arreta eta arreta espezializatua barne, baliabideen kudeaketan eraginkortasuna hobetu eta laguntza prozesuei jarraipena emateko. 2020an ez da erakunde berririk onartu, baina Onkologikoaren osasun-zentroa sartu da 2018ko abenduaren 27an sinatutako Osasun-laguntzarako hitzarmenaren bidez hitzartutako zentro gisa.

Finantziazio-iturria, nagusiki, EAeko Aurrekontu Orokorren kontura Osasun Sailarekin urtero izenpetzen den kontratu-programatik dator, Enteko inbertsioak finantzatzeko kapitalezko dirulaguntzekin batera. Jarduera gauzatzeko Osakidetzak EAeren jabetzako ondasun eta eskubideak ditu atxikiak edota Estatuko Gizarte Segurantzarenak.

Osakidetzaren jardueraren gaineko finantza kontrol iraunkorra Ekonomia Kontrolerako Bulegoak gauzatzen du.

2020ko ekitaldian Osakidetzari ezargarrria zaion arautegiaren baitan, aipatzekoa da:

- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
- 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren estatutu sozialak finkatzen dituena.
- 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun Zerbitzuetako estatutupeko langileen Estatutu Markoa onartzen duena.
- 186/2005 Dekretua, uztailaren 19koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituena.
- 235/2007 Dekretua, abenduaren 18koa, Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakia onartzen duena, 2007, eta urteetarako, 2016an indarrean dagoena.



- 1996ko abenduaren 23ko Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra Osasun Laguntzako Enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena; 1159/2010 Errege Dekretua, irailaren 17koa, aldarazten duena eta 602/2016 Errege Dekretua, abenduaren 2koa, biak aldarazten dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEn Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
- 13/2019 Legea, abenduaren 27koa, 2020ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 2/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 21ekoa, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituena.
- 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, EAEko sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzkoa.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzeko dena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, 2018ko martxoaren 9az geroztik indarrean, hamaseigarren azken xedapeneko salbuespenak izan ezik.

Gainera, martxoaren 11n munduko pandemia-egoera aitortu izanaren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera onartu zen eta sektore publikoko kontratazio-prozedurak eten ziren; egoera horrek osasun-kudeaketa barne hartzen du. Hona hemen onartutako legeria esanguratsuena:

- Martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretua, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko premiazko neurriak hartzen dituena.
- 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena.

Osakidetzaren urteko kontuak formulatu dira 1514/2007 Errege Dekretuak, azaroaren 16koak, onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoari jarraikiz; egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontuak eskuratzen dira zerbitzu-erakundeen finantza egoerak gehitzeko prozesuaren ondorioz.

Osakidetzak nahiz Osatek SAren kapital sozialaren % 100 duen, ez ditu urteko kontu bateratuak aurkezten, nahiz kontu bateratu horien isla zuzena ez litzatekeen nabarmen aldatuko Osakidetzak eta Osatek SAk nor bere aldetik aurkezten dituen urteko kontuekin alderatuz gero.

A.2 PERTSONALEKO GASTUAK

Idazpuru honen gastuak guztira 2.161,3 milioi euro dira eta 2020ko ekitaldiko ustiapen gastuen % 66,% 42 egiten du.

Langile gastuaren xehakapena eta batez besteko plantilla honakoa da:

	Euroak milakotan		Langile kop.	
	2020	2019	BAT. BEST. PLANTILLA 2020	2019
Finkoak, bitartekoak eta zuzendariak.....	1.075.423	1.071.759	24.480	24.594
Aldi baterakoak.....	318.734	235.473	12.043	9.806
Ordezkoak	222.603	211.775	3.591	3.397
Barruko osasun langile egoiliarak	55.046	52.295	1.386	1.403
SOLDATAK ETA PLANTILLA GUZTIRA	1.671.806	1.571.302	41.500	39.200
Gizarte Segurantzaren kotizazioa	454.652	421.376		
Pentsioak eta Itzarriri ekarpenak	30.791	22.161		
Beste gizarte-gastu batzuk	4.038	4.565		
GIZARTE KARGAK GUZTIRA	489.481	448.102		
GUZTIRA	2.161.287	2.019.404		

Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriei buruzko urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritakoaren arabera, 2020an langileen ordainsariekin % 2ko igoera izan dute 2019koekin alderatuta.

2019koaren aldean izandako 141,9 milioi euroren igoera (% 7,03) soldata-igoerari eta Covid-19aren ondoriozko langileen kontratazio handiagoari zor zaie; izan ere, kalkuluen arabera, gastua 114,5 milioi euroan gehitu da, eta horrek batez besteko plantilla % 5,9 handitzea ekarri du 2019koarekin alderatuta, gero eta handiagoa den osasun-eskariari erantzun ahal izateko.

Itzarri Gizarte Aurreikuspenezko Erakundeari egindako ekarpenak 24,7 milioi euro izan dira. Azarora arte luzatu da langile-gastuetarako zuzkiduren % 1,5eko ekarpena, 2019ko azaroaren 26ko Gobernu Kontseiluaren akordio bidez onartutakoa, eta abenduaren 1etik aurrera, berriz, % 2koa izan da ekarpena, 2020ko abenduaren 1eko akordioaren bidez.

Osakidetzaren egiturazko plantilla 110 lanpostutan handitu zen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2020ko ekainaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, batez ere 2020tik 2022ra bitartean Lehen Mailako Arretaren antolaketa-eredu berria finkatzeko eta giza baliabideez hornitzeko. 2020ko abenduaren 31n Osakidetzako egiturazko plantilla, Zuzendaritzako 94 lanpostuak barne, 27.700 lanpostukoa da.



Pentsioetarako zuzkidurak

Osakidetzak pentsio-osagarrietarako pentsioen arloan dituen betebeharrak honako hauentzat dira:

- Insalud-etik eskualdatutako osasun pertsonal estatutario ez fakultatiboak, zegokionean erretiroa eskatu eta 25 urteko zerbitzualdia egiaztatu zuenak, erretiro unean jasotzen zituen ordainsari finkoen % 100era arteko pentsioa jasotzen du. Osasunaren Nazio Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indarrean sartu izanaren ondorioz, 2012ko apiriletik aurrera ez da kolektibo honetan plantilla handitu.
- Tuberkulosiaren aurkako Patronatutik datorren langileria, zeinak Osakidetzatik osorik jasotzen baitu gizarte Segurantzaren kotizatu ez duelako.
- 1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratutako Basurtoko Ospitaleko langile batzuk.

2020ko abenduaren 31n pentsioetarako zuzkidura 88 milioi euro izan da, Osakidetzak emandako aztergai diren kolektiboen datuak oinarri hartuta aditu independenteek egindako azterketa aktuarial baten arabera.

Osakidetzak eutsi egiten dio hornidura hori ez erregistratzeko eta soil-soilik egiaz gauzatutako urteko gastua kontabilizatzeko irizpideari; hornidura 6 milioi eurorena izan da.

Erretiro sariak

Arauzko erretiro-adina baino urtebete eta lau urte bitarte lehenago erretiratzen den langileria. Abenduaren 23ko 6/2011 Legeak, 2012ko ekitaldirako EAEn Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, sari honen aplikazioa bertan behera utzi zuen eta ondoko ekitaldietan etenaldiak dirau.

EPE

2016-2017ko baterako EPETik, txanda irekiko 3.016 lanposturentzat eta barne-sustapeneko 319 lanposturentzat (2018ko otsailaren 5eko ebazpenaren bidez onartu ziren horien oinarriak), espezialitate medikoen araberako plazen deialdiak 2018an eta 2019an onartu eta argitaratu dira. Eskaintza publiko honetan hainbat salaketa jarri dira zenbait mediku-espezialitatetako proben garapenari dagokionez eta horren aurrean, 2018ko ekainaren 4ko Administrazio-kontseiluak EPEaren proba guztietan emaitzen koherentziari buruzko azterketa zorrotza egitea erabaki zuen, aukera-berdintasuna bermatzearen.

2019an eta 2020an, Osakidetzak EPEko 13 hautaketa-prozesu bertan behera uztea erabaki zuen kautelaz, Gasteizko Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegiak prozesu horietarako eginbideak abiarazi baitzituen, azterketen filtraziorik egon ote zen erabakitzeko. Txosten hau idatzi dugun datan, eginbideak abian dira eta deitutako kategorietako gainerako



hautaketa-prozesuak, ikertu ez direnak, ia amaituta daude, 2 espezialitate medikotan izan ezik.

2018ko eta 2019ko EPEak (Osakidetzako administrazio-kontseiluek 2018ko abenduaren 17an eta 2019ko abenduaren 26an, hurrenez hurren, onartutakoak) batera egitea erabaki zen, hautaketa-prozesuen arrazionalizazioa eta efikazia bermatzearren, bi eskaintzetako 3.535 lanpostu hutsetarako, 3.233 txanda librean eta 302 barne-sustapenean. 2021ean 19 espezialitatetako oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu dira.

2020ko EPEa Osakidetzako Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2020ko abenduaren 18an, txanda irekiko 1.002 lanpostutarako, eta txosten hau idatzi dugun datan Oinarri Orokorrak onartzeke daude.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 KONTRATAZIOA

84 espediente berrikusi ditugu: aurreko ekitaldian formalizatutako 23, -horiei dagokienez, 2020an izan duten egikaritzea, aldaketak eta/edo luzapenak, hala badagokio, aztertu dugu- eta 2020an formalizatutako 61.

LEHENAGOKO URTEETAN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEI/KONTZEPTUA	PROZED. (*)	ZENBATEKOA 2020 (**)		
		ESLEI.	EGIK.	AKATSA
ZUZENDARITZA NAGUSIA				
1. Zuzendaritza Nagusirako ibilgailuen errentamendua	I	281	101	-
2. Osakidetzaren Ente Publikoaren epaiketaren ordezkaritza prozesaleko zerb.	I	500	48	-
ZERBITZU NAGUSIAK				
3. Ginekologia eta obstetriziako ekografia-ekipoen hornid. hainbat zentrotan	I	2.610	2.610	-
4. Zenbait zentrotarako erradiol. digitaleko aretoen hornidura	I	2.929	2.003	-
5. Diagnostiko Biologikoko Sarean influenza birusak detektatz. ekipoak horn.	I	884	525	-
6. Itxarote-txandak eta Lehen Arretako Zentr. hitz. kudeatz. hardw. erostea ..	I	1.008	138	-
7. Zenbait zentrotarako erradiol. digitaleko ekipoen hornidura	I	2.266	2.266	-
8. Zenbait zentrotarako monitorizazio ekipoen hornidura	I	5.290	4.884	-
9. Zerbitzu-erakundeetarako zelulosazko produktuen hornidura	I	2.655	1.622	-
10. Zentroetako azeleragailu linealen mantentze-zerbitzua	EPGN	4.401	1.923	-
11. Social Media eremuko aplikazioen mantentze-lanak	I	460	460	-
ARABAKO ZEI				
12. Bizkar hezurreko inplanteak hornitzea	I	3.201	812	-
13. Txagorritxu Kirurgiako Blokearen eraikin berrirako kirurgia-mahaien hornid.	I	2.050	1.519	-
14. Hezur-ordezkoak hornitzea	I	501	192	-
15. Txagorritxu Kirurgiako Blokearen eraikin berrirako monitorizazio ekip. horn.	I	2.174	2.174	-
16. Arabako U.O. - Txagorritxuko esterilizazio ekipamendu zentralaren horn.	I	1.090	1.090	-
17. Kirurgia laparoskopikorako materiala hornitzea	I	1.322	654	-
18. Eraikinen kontserbazio-, mantentze- eta egokitzapen-lanak	I	1.700	1.168	-
19. Agiri klinikoak erazteko, lekualdatzeko, zaintzeko eta desegiteko zerb.	I	636	94	-
20. Kafetegien - jantokien elikadura- eta ustiapen-zerbitzua	I	3.309	2.589	-
DONOSTIALDEKO ZEI				
21. Donostiako U.O.ko ama-haurrentzako eraikinean 5 igogailu horn., instal. ...	I	1.033	827	-
BILBO-BASURTOKO ZEI				
22. Iralako Osasun Zentro berria egokitzeko obrak	I	1.514	1.318	-
EZKERRALDEKO ENKARTERRI GURUTZETAKO ZEI				
23. Gurutzetako U.O.rako PET-TAC sistema horn., egokitzapen-obra barne....	I	3.411	2.164	-
GUZTIRA		45.225	31.181	

(*) Prozeduraren erreferentziak:

I: Prozedura irekia

EPGN Esklusibotasunagatik publikotasunik gabeko negoziatua

(**) Esleitutako zenbatekoak guztizkoa jasotzen du aldaketa eta luzapenekin. Zenbateko egikaritzea 2020.12.31n metatutakoa da



2020AN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEIKONTZEPTUA	PROZED. (*)	URTE KOP.	ZENBATEKOA 2020 (**)		
			ESLEI.	EGIK.	AKATSA
ZUZENDARITZA NAGUSIA					
24. Ruriotocog Alfa Pegol hornitza	EPGN	4	12.900	120	-
25. Ixekizumab hornitza	EPGN	4	1.801	287	-
26. Clevidipino hornitza	EPGN	4	1.665	16	-
27. Binimetinib eta Encorafenib hornitza	EPGN	4	2.983	-	-
28. Ribociclib hornitza	EPGN	4	1.947	16	-
29. Sofosbuvir, ledipasvir, velpatasvir eta voxilaprevir hornitza	EPGN	4	18.336	623	-
30. Dolutegravir eta Lami vudina hornitza	EPGN	4	14.554	-	-
31. Evolocumab hornitza	EPGN	4	1.547	81	-
32. Ustekinumab eta Rilpivirina hornitza	EPGN	4	35.231	2.036	-
33. Nintedanib, Afatinib eta Idarucizumab hornitza	EPGN	4	6.751	186	-
34. Vedolizumab hornitza	EPGN	4	9.177	508	-
35. Dolutegravir, Maraviroc, Fosamprenavir hornitza	EPGN	4	15.936	794	-
36. Axicabtagen Ciloleucel hornitza	EPGN	4	16.324	228	-
37. Galcanezumab hornitza	EPGN	4	1.600	287	-
38. Durvalumab hornitza	EPGN	4	12.765	274	-
39. Dupilumab hornitza	EPGN	4	8.453	363	-
40. Interferon Beta 1.a hornitza	EPGN	4	7.116	149	-
41. Nitrilozko eskularruak hornitza, XS-P-M-G-XL tallak	E	-	6.320	6.320	-
42. FFP2 eta FFP3 maskarak hornitza	E	-	5.760	5.760	-
43. PCR probak egiteko erreaktiboak hornitza	E	-	5.500	5.500	-
44. PCR probak egiteko erreaktiboak hornitza	E	-	5.500	5.467	-
45. Babes handiko mantalak hornitza	E	-	4.500	4.500	-
46. Eskularruak, buzoak, gel hidroalkoholikoa, isipuak eta maskarak hornitza.	E	-	5.168	5.168	-
47. Mantal ez esteril iragazgaitzak hornitza	E	-	4.115	3.306	-
48. FFP2, IIR maskarak eta eskularruak hornitza	E	-	3.530	3.530	-
49. Mantal ez esteril iragazgaitzak hornitza	E	-	3.340	3.340	-
50. FFP2 maskarak hornitza	E	-	3.210	3.210	-
51. FFP2 maskarak hornitza	E	-	2.350	91	-
52. Mantal ez esteril iragazgaitzak hornitza	E	-	2.670	2.670	-
53. PCR probak egiteko erreaktiboak hornitza	E	-	2.520	1.382	-
54. Nitrilozko eskularruak hornitza	E	-	2.564	2.564	-
55. Mantal ez esteril iragazgaitzak hornitza	E	-	2.400	-	-
56. IIR maskara kirurgikoak hornitza	E	-	2.275	2.275	-
57. Nitrilozko eskularruak hornitza	E	-	1.800	696	-
58. KN95 maskarak eta 3B E babes-mantalak eskuratzea	E	-	2.125	2.125	-
59. IIR maskara kirurgikoak hornitza	E	-	2.000	2.000	-
60. Ospitaleratzeko eta ZIUrako oheak hornitza	E	-	1.746	1.746	-
61. Nevirapina, Somatostatina, giza Fibrinogenoa eta beste hornitza	I	1	1.862	10	A1,3
62. Miglustat, Tirofiban, Capecitabina, Erlotinib eta beste hornitza	I	1	2.517	-	A1,3
63. Bevacizumab hornitza	I	1	2.476	-	A1,3
ZERBITZU NAGUSIAK					
64. Kanpoko erradiofarmazia zentralizatua hornitza	I	4	9.486	66	A1,3
65. Galdakaoko Ospitaleko farmazia-zerbitzua handitzeko hornidura	I	1	2.295	-	A1
66. Onkologikorako azeleragailu lineala erostea, egokitzapen-obrak barne	I	0,3	2.376	-	A1,2,5
67. Pazienteak identifikatzeko eskumuturrekoak hornitza	I	4	1.020	20	A1,3

.../...



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2020AN FORMALIZATUAK

Euroak milakotan

ZEI/KONTZEPTUA	PROZED. (*)	URTE KOP.	ZENBATEKOA 2020 (**)		AKATSA
			ESLEI.	EGIK.	
DONOSTIALDEKO ZEI					
68. Donostiako U.O.rako hemodinamikako bi gela hornitzea	I	0,9	1.368	-	A1
LARRIALDIETAKO UNITATEA					
69. Bizi-euskarriko hiru asistentzia-anbulantziaren errentamenduko horn.	I	5	851	143	A1
ARABAKO ZEI					
70. Katarata-kirurgiako material hornidura	I	4	2.522	245	A1
TRANSFUSIO ETA GIZA-EHUNEN EUSKAL ZENTROA					
71. Patogenoak murrizteko produktu eta ekipoa erosteko EA.....	I	2	1.040	100	A1,5
BILBO-BASURTOKO ZEI					
72. Basurtuko U.O.ko lanpara kirurgikoak eta mahai kirurgikoak hornitzea.....	I	0,2	788	160	A1,3
73. Instalazioen mantentze integraleko eta hoditeriako zerbitzua	I	2	624	86	A1,5
BARRUALDE-GALDAKAKO ZEI					
74. Galdakao-Usansolo Ospitaleko kafetegi zerbitzua.....	I	3	810	9	A1
75. Saltzeko makinaren zerbitzua	I	3	465	-	A1
76. Laparoskopiko materiala erosteko EA	I	3	1.493	83	A1,4,B1,2
EZKERRALDEA-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ZEI					
77. Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zaintza eta segurtasun zerbitzua.....	I	1	799	799	A1
78. Enkarterrietako espezialitateen zentro berriko segurt.-plana, obra zuzend. .	I	2	297	-	A1
79. Bihotzeko kirurgia zerb. bih. kanpo zirkulazioko bi ponpa-sistema horn.	I	0,3	235	-	A1,3
BIZKAIKO OSASUN MENTALEKO SAREA					
80. Manuene adikzioak dituzten pertsonen eguneko ospitalearen asist.-kud. ...	I	2	601	272	-
GOIERRI-UROLA GARAIKO ZEI					
81. Saltzeko makina automatikoen zerbitzua	I	3	189	-	A1,5
DEBABARRENEKO ZEI					
82. Eibarko Ospitaleko ikuztegi zerbitzua	I	2	229	162	A1
URIBEKO ZEI					
83. Urdulizko ospitaleko elikadura-zerbitzuetarako lehengaiak hornitzea.....	I	3	1.035	-	A1,5
84. Urdulizko Ospit. esterilizazioko unit. agentearen kartutxo-botilen hornid. ...	I	5	162	-	A1
GUZTIRA			274.019	69.774	

(*) Prozeduraren erreferentziak:

I: Prozedura irekia

L: Larrialdia

EPGN: Esklusibotasunagatik publikotasunik gabeko negoziatua

(**) Esleitutako zenbatekoa BEZik gabe da eta aleko prezioen kasuan gehieneko zenbatekoa jasotzen da. Zenbateko egikaritua 2020ko abenduaren 31n metatutakoa da

Akatsa

Euroak milakotan

Lizitazioa

A1	Lizitazioko oinarriko aurrekontuaren kalkulua ez da justifikatzen ez xehatzen (SPKL 100.2 art.).....	34.939
A2	Balio zenbatetsiaren kalkulua ez ditu irizpideak betetzen (SPKLren 101. art.)	2.376
A3	Ez dago jasota prezio irizpidea baloratzeko baliatutako formularen justifikazioa (SPKLren 146 art.).....	18.384
A4	Esleipen irizpideen definizioek ez dituzte baldintzak betetzen (SPKLren 145. art.)	1.493
A5	Aurreikusitako aldaketek ez dituzte baldintzak betetzen (SPKLren 204 art.).....	5.264
Esleipena		
B1	Txosten teknikoak ez dago behar bezain arrazoitua (SPKLren 151.1 eta 157.5 art.).....	1.493
B2	Esleipen ebazpena ez dago behar hainbat arrazoitua (SPKLren 151.2 art.)	1.493



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontratu txikiak

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako kontratu txikiak aztertzetik honako zenbateko eta ez-betetze hauek ondorioztatu dira:

KONTZEPTUA	GASTUA GUZTIRA	K. TXIKIA		AZTERTUA		EZ-BETETZEA	
		ZENBAT.	%	ZENBAT.	%	ZENBAT.	%
Sendagaiak.....	313.037	30.472	% 9,7	30.472	% 100	19.721	% 64,7
Bestelako hornigaiak.....	388.932	117.326	% 30,2	117.326	% 100	84.040	% 71,6
Inbertsioak.....	45.953	6.626	% 14,4	6.626	% 100	1.833	% 27,7

Kontratu txiki bidez sendagaiak erosteari dagokionez, azpimarratzekoa da kontratu txikien zenbatekoa murriztu izanaren ondorioz izan duen bilakaera positiboa, 2012an 53,3 milioi euro izatetik, 2020an 19,7 milioi euro izatera aldatu baita.

A.4 OSATEK SA

Pertsonaleko gastuak

2020ko ekitaldian, Osatek SAren langileria-gastuek 16,9 milioi euro egin dute, honako kontzeptu hauen izenean:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2020	2019
Soldata eta ordainsariak.....	14.008	14.259
Gizarte Segurantza.....	2.730	2.859
Beste gizarte-gastu batzuk.....	198	126
GUZTIRA	16.936	17.244

2020an langileen gastua % 1,79 murriztu da 2019aren aldean. Soldaten ordainsaria % 2 igo den arren, Covid-19ak eragindako egoerak % 13 murriztu ditu miaketak eta artatutako pazienteak, eta, ondorioz, 3,9 milioi euroren produktibitate-osagarria, soldaten % 28,19, % 12,37 murriztu da 2019arekin alderatuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2020ko ekitaldi itxieran, egiazko plantilla 255 langilekoa da; hona hemen xehakapena:

Langile kop.

	GOI ZUZENDARITZA		MUGAGABEAK				ALDI BATERAKOAK		GUZTIRA	
			FINKOAK		EZ FINKOAK					
	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Zuzendariak.....	1	1	-	-	-	-	-	-	1	1
Zuzendariak eta arlo-arduradunak.....	-	-	2	2	-	-	1	1	3	3
Langile sanitarioak.....	-	-	81	85	34	31	66	65	181	181
Langileria administr. eta teknikoak.....	-	-	26	26	14	15	30	27	70	68
GUZTIRA	1	1	109	113	48	46	97	93	255	253

2020an aldi baterako kontratua zuten langile mugagabe ez finkoen kopurua 2 pertsonatan handitu da epai judizialen ondorioz.

Zerbitzuak emateagatiko sarrerak

Kontzeptuen araberako sarrerak dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2020	2019
Mediku miaketak (Erres.Magn.) / Osakidetza.....	20.398	21.914
Bestelako sarrerak.....	82	85
GUZTIRA	20.480	21.999

Osakidetzari erradio-diagnostiko zerbitzuak emateagatiko sarrerak 20,4 milioi euro egin dute, negozio zifraren zenbateko garbiaren gainean % 99,9; horrek 2019koaren aldean % 6,9ko murrizketa ekarri du, Covid-19aren ondorioz. Urtero, zerbitzuen emakida-baldintzak arautzen dituen hitzarmen bat izenpetzen da eta, besteak beste, zehazten ditu emandako zerbitzuen tarifak, aurreikusitako jardura eta finantzaketa, zerbitzuen kartera eta emandako zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko adierazleak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontratazioa

2020ko ekitaldian formalizatutako 6 espediente aztertu ditugu.

FORMALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

ESPEDIENTE ZK./DESKRIBAPENA	PROZED. (*)	ZENBATEKOA 2020		
		ESLEI.	EGIK.	AKATSA
1. RM hornitzea Deusturako, obrak eta mantentze-lanak barne.....	I	1.715	1.051	-
2. Erakundearen aplikazioen mantentze-lanak	EN	70	-	-
3. Erantzukizun zibileko aseguruak/1. lotea eta ekipo elektr./2. lotea	IS	68	-	-
4. Aspirazioz lagundutako biopsia egiteko material sanitarioa eskuratzea, bularra markatzea eta horretarako behar den ekipamendua lagatzea	IS	43	20	-
5. Agfa impax estazio klinikoak zenbait unitatetan hornitzea	EN	24	-	-
6. Girotzeko instalazioen mantentze-lanak luzatzea.....	E/E	49	-	-
GUZTIRA		1.969	1.071	

(*) Prozedura: I: Irekia IS: Ireki sinplifikatua EN: Esklusibotasunagatik negoziatua



OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ETA OSATEKEN 2020 ALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINIKO ALEGAZIOAK

I.- SARRERA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta OSATEK SA sozietatearen 2020. urteko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko, erreferentziatzeko gaiaren inguruan erakunde horiek egin nahi izan dituzten eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoan zentralizatu diren alegazioak eta justifikazioak aurkezten dira txosten honetan.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Kontratazioa

1. *Osakidetzako zerbitzu-erakundeek kontratu txiki gisa izapidetu dituzte produktuen zenbait hornidura eta ondasun higigarriak eta inbertsioak, eta kontratuaren xedea zatikatu dute; horiek guztiek dagokion prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeen. Sendagaien hornidurari dagokionez, akats hori 19,7 milioi euroren erosketetan hauteman da, aztertutako 30,5 milioi euroetatik, 84 milioi euroren beste hornidura batzuetan, aztertutako 117,3 milioi euroetatik, eta 1,8 milioi euroren inbertsioetan, aztertutako 6,6 milioi euroetatik, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-txostenetatik ondorioztatu denaren arabera.*
- *Kontratu txiki bidez sendagaiak erosteari dagokionez, azpimarratzekoa da kontratu txikien zenbatekoa murriztu izanaren ondorioz izan duen bilakaera positiboa, 2012an 53,3 milioi euro izatetik, 2020an 19,7 milioi euro izatera aldatu baita.*

ALEGAZIOA

A.- MEDIKAMENTUAK

1. Kode nazional bakoitzerako 15.000 euroko muga gainditzen duten kasuen 19.721 mila euroko guztizkotik, % 44tik gora dagozkie merkaturatze eskusiboko eta/edo izaera biologikoko eta ez-kimikoko medikamentuen erosketei.

Esklusibotasunak esan nahi du medikamentu batek hornitzaile bakarra duela eta, beraz, medikamentuak patologia jakin bat tratatzen duen hornitzaile bakar horri eskatu zaizkiola. Halakoetan, ezinezkoa da lehia-printzipioa urratzea. Nabarmendu behar dugu halako kasuetan hornitzaile bakarra dagoela, eta sendagaien prezioa Osasun Ministerioak ezartzen duela. Gogoan izan behar dugu Espainian medikamentuen prezioak ez direla askeak eta aipatutako Ministerioak ezartzen dituela. Hain zuzen, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (aurrerantzean, AEMPS) medikamentuei buruzko online informazio-zentro bat (CIMA) du bere webgunean. Bertan, medikamentu bakoitza komertzializatzen dituzten titularrak nor diren zehazten da eta, beraz, azalpen

hauetarako hain funtsezkoa den datu hori egiaztadaiteke (<http://www.aemps.gob.es/cima/fichasTecnicas.do?metodo=detalleForm>).

Bestalde, medikamentu biologikoak eta ez kimikoak izateak konplexutasun handiagoa dakar bai medikamentuok erabiltzean bai haien jarraipena egitean, eta horrek espedientearen izapidetzea baldintzatzen du. AEMPSEk berak ere medikamentu horiek ordezkazekin direla ezartzen du eta, 2009/04/24ko oharrean adierazten du ezen, pazienteen osasuna babeste aldera, medikamentu biologikoak ezingo direla ordeztu medikamentua emateko momentuan medikamentua agindu duen medikuak berariaz baimenik ematen ez badu. Gainera, konplexutasun tekniko hori dela eta, European medikamentu biologikoak merkaturatzeko baimenak Europako agintaritza sanitarioak (EMA) soilik ematen ditu eta ez agentzia nazionalak.

2. 2019an, kode nazional bakoitzerako 15.000 euroko muga gainditzen duten kasuen 19.721 mila euroko gutzizkotik, % 43 gutxienez dagozkie 2022ko uztailearen 4an esparrukontratua indarrean zuten printzipio aktibodun medikamentuei. Beraz, esan daiteke gaur egun neurri zuzentzaile egokiak hartu direla.
3. Txostenean aipatzen diren farmako ia guztiak ospitalean erabiltzekoak dira; hau da, konplexutasun tekniko handiko medikamentuak dira eta patologia larrietarako, patologia ezgaitzaileetarako, diagnostikatzen oso zailak diren patologietarako, eskari asistentziala aurrez zehaztea ezinezkoa den patologietarako dira aproposak eta pazienteentzako eta gero kontsumitzeko aproposak. Era berean, oso garestia da.

Zerbitzu-erakundeek egiten duten erosketen kudeaketaren helburua asistentzia-premiak berehala asetzea da. Medikamentuak funtsezko hornigaiak dira asistentzia-zerbitzuek behar bezala funtziona dezaten; ezin zaio zerbitzua emateari utzi kontratazio-espedientea prestatu eta lizitazioa egin bitartean; izan ere, konplexutasun tekniko handiko prozedurak dira eta espezifikotasun zehatzak dituzten merkatu farmazeutikoko kanpo-elementuen eraginpean daude. Konplexutasun horri gehitu behar zaio medikamentuak, oro har, forma farmazeutiko edo galeniko desberdinetan erabili ohi direla (konprimatuak, kapsulak, disoluzioak, injektagarriak, etab.), eta dosifikazioak, eszipienteak, iraungipena, egonkortasuna eta erabilera-baldintzak eta -indikazioak desberdinak direla. Bestalde, hornitzaileek hainbat baldintza logistiko eskaintzen dituzte eta hori ere aztertu behar izaten da.

Ondorioz, kalitateko asistentzia sanitarioa bermatu ahal izateko, nahitaezkoa da espedienteak hasi aurretik egin behar diren ekintzak zehaztea, kontrataziorako baldintza tekniko, ekonomiko eta logistiko egokienak zehaztu ahal izateko.

4. Osakidetzaren kontratazio-ahalegina gorabehera, gogoan izan behar da merkatuak inguruabar bereziak dituela, eta, haien ondorioz, zerbitzu-erakundeak zuzeneko erosketetara jo behar dutela. Izan ere, medikamentuak funtsezko hornigaiak direnez, ezin da eten haien prestazioa, pazienteak artatzeko behar klinikoa baitago.

Inguruabar hauetatik, besteak beste, hauek azpimarra daitezke:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- a) Kontratuaren bidez erosteko ezintasuna, kontratatutako sendagaien hornidura-gabezia absolutu eta jarraituak direla eta.
- b) Kontratatutako sendagaien segurtasun-arazoak direla-eta kontratuz erosteko ezintasuna, pazientearen interesaren ondorioz sendagai horiek ezin direlako erabili eta berehalako alternatiba bat ematera behartzen duelako.
- c) Kontratu bat formalizatzeko ezintasuna, hornitzaileak ez direlako aurkeztu liziatziora eta kontratua hutsik geratu delako.
- e) Indarrean dauden kontratuak luzatzeko ezintasuna, hornitzaileak ez daudelako ados.

Kontratu baten ondorioak mantentzeko edo formalizatzeko zailtasuna, eskubideen lagapenengatik, nazionalitate ez-espainiarreko merkataritza-erakundeengatik, enpresen bat-egiteengatik edo jarduera-adarren lagapenengatik, etab.

Inguruabar horien eraginpean daude kode nazional bakoitzerako 15.000 euroko muga gainditzen duten 19.721 mila euro horien % 16.

Medikamentuen kontratazio-eskarmentu luzea ikusita, ondorioztatzen da inguruabar horiek medikamentuak erosteko prozeduraren berezko ezaugarriak direla, Osakidetzaren eskuetatik kanpokoak, kontratazioan ahaleginak egin arren.

AZKEN GOGOETA

Osakidetzak ospitaleetako medikamentuen kontratazioa zentralizatuta mantentzen du duela urte batzuetatik (gastuaren % 90 inguru).

Osakidetzan medikamentuen kontratazio zentralizatuaren betetze-maila handi horrek eragin positiboa du aurrekontu-egonkortasunaren eta gastu-kontrolaren helburuan, funts publikoen erabilera eraginkorra bermatzen da, eta erosketaren bateratuaren hobekuntza etengabea lortzen da, baldintza tekniko eta ekonomiko hobeak lortzeko.

Azkenik, aipatzekoa da 2020an medikamentuen kontratazioaren gaineko eragina ez dela izan txikiagoa, SARS-coV-2 birusaren zirkulazioak eragindako pandemiak ekarri zuen egoeran. Ildo horretan, nabarmentzekoa da 2020an administrazio-epeetan etenak izan zirela, eta, gainera, mundu osoan, tentsioa nabarmen areagotu zela medikamentuen hornidura-katean (horniketa faltak izan zirelako), kontratatutako medikamentu jakin batzuen eskaria handitu egin zela, eta egoera horrek kontratuak hasieran aurreikusitako baldintzetan gauzatzea eragotzi ahal izan zuela.

B.- GAINERAKO PRODUKTUAK

Kontratu txiki bidez medikamentuak ez diren beste hornidura batzuk kontratatzeari dagokionez, hobekuntza txiki bat ikusten da 2019ko datuarekin alderatuta. Txostenaren arabera, 2020ko ekitaldian, 84.040 mila euroko ez-betetze bat dago 388.932 mila euroko guztizko gastuari dagokionez; hau da, % 21,6ko ez-betetzea. Ehuneko hori 2019ko ez-betetzea baino 2,4 puntu txikiagoa da, eta erosketaren txikiak % 24,0 izan ziren guztizko gastuari dagokionez.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontzeptua	Ejercicio	Gutzizko gastua	K. TXIKIA		AZTERTUA		EZ-BETETZEA		% Txikia Gutzizko gasturik g/
			Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Beste hornidura batzuk	2019	324.207	90.410	% 27,9	90.410	% 100,0	77.729	% 86,0	% 24,0
	2020	388.932	117.326	% 30,2	117.326	% 100,0	84.040	% 71,6	% 21,6

2016an, indarrean dagoen esparru-kontratuarekin zuzeneko eskaerak gerora lotzeko aukera ematen duen prozesu informatikoa abiarazi zen, eta, hari esker, errore gutxiago gertatu dira kontratu txikiak erregistratzean.

Halere, oraindik ere eragozpen informatikoak daudenez kasu batzuetan eta eskaera batzuk ezin zaizkienez adjudikatu indarrean dauden esparru-kontratuei, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kontratazio txikiko zenbatekoa (117.326 mila euro) zehazteko erabilitako zerrendak zuzendu beharreko akatsak ditu. Aipatutako txostenaren arabera, zenbateko horren 6.509 mila eurok legezko babesa dute kontratua indarrean egoteagatik. Ondorioz, legeak babesten dituen eskaerak lirateke, Osakidetzaen eta enpresa adjudikaziodunaren artean indarrean dagoen kontratu baten bidez. Kontratu txikia indarrean duten zuzeneko eskaeren zerrendatik atera da datu hori, 2022ko ekainaren 24an, 2020ko ekitaldirako. Beraz, uste dugu 6.509 mila euroko zenbateko hori kendu egin beharko litzatekeela erosketa txikiari dagozkion gertakarietatik.

TALDEAK	ESPTEA	Zenbatekoa
20TIK 30ERA	ZENTROAK	250.150
	OSC1	23.368
Gutzira 20TIK 30ERA		273.519
40TIK 51RA	ZENTROAK	1.061.548
	OSC1	5.173.693
Gutzira 40TIK 51RA		6.235.241
Gutzizko orokorra		6.508.760

Taula honetan, produktu multzokako banaketa azaltzen da. EXPTE zutabeak adierazten du eskaerekin lotu beharreko esparru-kontratuak erakundeen (ZENTROAK) berezko espediente bati loturik zeuden, edo espediente zentralizatu bati (OSC1).

Erosketa zentralizatuari dagokionez, 2019ko urrian abiarazi zen Izapide, espedienteen kudeatzaile berria. Izapidetze-prozesuan sortu ziren lehen gertakariak eta erosketa



bateratuko espedienteen konplexutasuna kontuan hartuta, lizitazioen hasiera atzeratu zen, Izapide aplikatiboa egonkorrago egon arte, eta ezohiko luzapenetara jo. Inguruabar horrek erakunde sanitario guztiei eragin zien.

Bestalde, martxoaren 11n, OMEk pandemiatzat jo zuen COVID-19aren agerraldia, eta horrek eragina izan zuen zerbitzu-erakundeetako langileen egunerokoan. Hilabete batzuetan espedienteen izapidetzea eten egin zen. Langile gehienak etxetik aritu ziren lanean, modu telematikoan, eta ezinezkoa zen batzorde teknikoek bilerak egitea espediente berrien lizitazioan aurrera egiteko. Zuzendaritza Nagusian, langileek Premiazko espedienteak izapidetu zituzten, COVID-19ari aurre egiteko produktuen hornidura bermatzeko, Boroan Covid produktuen biltegi zentralizatua kudeatzeko, produktuak Osakidetzako erakundeei eta beste erakunde publiko batzuei banatzeko, erakundeek egindako produktu-eskaerak kudeatzeko eta biltegia berriz hornitzeko eskaerak egiteko. Horrela, gainerako prozedurak izapidetzeko lana bigarren mailan geratu zen, eta aparteko luzapenak izapidetzea erabaki zen.

Hala eta guztiz ere, 2020an, Zuzendaritza Nagusiak sei espediente esleitu zituen berritzeekin lotuta, guztira 3.200.001 uerokoak urtean. Gainera, 16 ezohiko luzapen izapidetu ziren, 106 kontraturi eragin zietenak (57.615.673,61 euro/urte guztira).



Espedientearen xedea	Esleitutako zenbatekoa Luzatua	Urteak	Esleitutako urteko zenbatekoa Luzatua	Esleipen-data Luzapena	Kontratu kop.
GERNU- ETA DRAINADURA-POLTSAK	636.400	2	318.200	2020.01.13	5
ARROPA LAUA, JANTZIAK ETA UNIFORMEAK	97.160	2	48.580	2020.01.24	1
HIES KONTRAKO KITAK, HIESA PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO PLANERAKO	342.720	4	85.680	2020.03.13	1
A.M. IDENTIFIKAZIO-ESKUMUTURREKOAK	1.019.608	4	254.902	2020.11.02	1
KANPOKO ERRADIOFARMAZIA ZENTRALIZATUA	9.510.356	4	2.377.589	2020.11.24	1
AM TEGADERM 3M	230.100	2	115.050	2020.12.28	1
1 - Espedienteen esleipena guztira (berritzea)	11.836.344		3.200.001		10
A.M. AORTAREN ENDOPROTESIAK	2.580.350,00	1	2.580.350,00	2020.06.11	8
A.M. STENT BASKULARRAK ETA ANGIOPLASTIA BALOIDUNAREN KATETERRA	2.565.898,00	1	2.565.898,00	2020.06.13	19
A.M. GAZAK, KOMPRESAK ETA BENDAK	1.261.658,20	1	1.261.658,20	2020.10.26	4
A.M. KATETER LABURRAK-INFUSIO EKIP.-ODOL-ATERATZEETARAKO EKIP.	1.677.233,00	1	1.677.233,00	2020.01.27	3
A.M. STENT KORONARIOAK, FARMAKO AKTIBOekin ESTALIAK	10.196.793,48	1	10.196.793,48	2020.12.23	20
NEURORRADIOLOGIAKO KOLIAK	1.325.125,00	1	1.325.125,00	2020.01.28	5
A.M. BIHOTZEKO BALBULAK	3.458.210,00	1	3.458.210,00	2020.07.21	7
IMMUNOHEMATOLOGIA TEKNIKAK-TRANSFUSIO JARR. SIS.	1.041.560,00	1	1.041.560,00	2020.10.10	1
A.M. ALDAKA INPLANTEAK	7.384.609,60	1	7.384.609,60	2020.10.01	14
A.M. ALDAKA INPLANTEAK (2. lotea)	550.000,00	1	550.000,00	2020.12.15	4
TAUPADA-MARKAGAILUAK, DESFIBRILADOREAK, HOLTER-AK ETA ELEKTRODOAK	13.186.253,91	1	13.186.253,91	2020.12.13	6
FLASH-FREE STYLE GAILUA ESPARRU-AKORDIOA	4.275.056,00	1	4.275.056,00	2020.01.31	1
A.M. ERABILI ETA BOTATZEKO ARROPA	772.565,00	1	772.565,00	2020.05.06	7
GALDAKAOKO LABORATEGIA	2.036.125,69	1	2.036.125,69	2020.07.11	1
HIBRIDAZIORAKO ZUNDAK (GENETIKOAK)	182.945,00	1	182.945,00	2020.11.06	2
JOSTURA MEKANIKOA	5.121.290,73	1	5.121.290,73	2020.10.20	4
2 - 2019ko aparteko luzapen guztiak	57.615.673,61		57.615.673,61		106
Guztira	69.452.017,79		60.815.674,66		116

Zuzendaritza Nagusia kontratuen gauzatzearen jarraipena hobetzen ari da oraindik ere, kontsumoa handitzeagatiko kontratu-aldaketaren gertakariak kontratuaren zenbatekoa agortu baino lehen izapidetzeko eta, horrela, kontratuaren zenbatekoa handitu ezean egiten diren zuzeneko ordainketak saihesteko.

Azkenik, erosketa txikiko zenbatekoak murriztea zailtzen duten arrazoiak azaldu nahi ditugu jarraian:

1. Kontratuen indarraldian, halaber, honako hauek ere gertatu dira: enpresek bat egiten dute, kontratu-lagapenak, inplanteen erferentziak zabaltzea, produktu zaharkituak ordezkatzeta, etab. Horrek berekin dakar SAP – EGINBIDE, IZAPIDE sistemetan egintzak gauzatzeta, eta, horregatik, eskaera batzuk kontratutik kanpo egin dira. 2020an, halako 99 egintza erregistratu ziren.

MOTA	ZENBAKIA	ESPEDIENTEA	Enpresen eskaera kop.
INPLANTEAK	1067/2014	Stent koronarioak	6
	1943/2017	Belauna	9
	1742/2014	Aldaka	10
	0535/2015	Bihotzeko balbulak	1
	0021/2014	Endoprotesiak	4
	0906/2016	Taupada-markagailuak, desfibriladoreak, etab.	7
	1141/2014	Neurorradiologiako koliak	3
	0022/2014	Stent baskullarrak	9
	Inplanteak guztira		49
LABORATEGIA	1236/2012	Immunoematologiako teknikak	1
	1410/2016	Autoimmunitate-tenikak	1
	0645/2018	Bularreko minbizia-Gongoil zelataria	3
	1049/2012	Anatomia patologikoa	2
	0482/2016	Alergia anali.zehaz.	3
	1142/2014	Core Donostia, Bidasoa...	4
	0195/2014	Galdakaoko laborategia	2
	0676/2018	Arabako ESiko analisi klinikoak	1
	0810/2015	Hibridazio-zundak	3
	0474/2012	Errutinazko analisi klinikoak	4
	0762/2014	Zitologia likidoa	1
1111/2014	TAO, antikoagulatzaile zerrendak	1	
	Laborategia guztira		26
BESTE ESPEDIENTE BATZUK	1528/2016	Bulegoko materiala	3
	1584/2017	Flash gailua	1
	0667/2016	Jostura mekanikoa	2
	1688/2017	Glukosa-deter. tira erreaktiboak	4
	1636/2017	GHS (giro hezeko sendaketak) aposituak	11
	0689/2018	Infusio-ekipoak	1
	1442/2017	Produktu dietetikoak	1
	1630/2018	Zelulosazko produktuak	1
	Beste espediente batzuk guztira		24
	Eskaerak guztira		99

2. Erosketa bateratuko espedienteek katalogoko "A" produktuak barne hartzen dituzte, hots, familia bakoitzean gehien kontsumitzen direnak. Produktu sanitarioen katalogo estandarizaturik ez dagoenez –sendagaiek badute (kode nazionala)–, Zuzendaritza



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Nagusiak erosketa bateratua egiteak eskatzen du gutxiago kontsumitzen diren baino kode gehiago dituzten produktuetara zabaltzea, eta hori dela eta aurretiko homologazioa egin behar da, neurketa-unitateei, unitateko prezioei eta sailkapenari dagokienez, bai eta merkatuaren analisisa ere, eta horien erabileren eta ezaugarrien adostasun bat behar da, plegu teknikoa prestatzeko, eta, ondorioz, espedientea prestatzeko prozesua luzatu egiten da. Uste dugu ezinezkoa dela zeregin horiek erosketa-zerbitzuko egungo langileekin egitea.

3. Zenbait produktutan (espezialitateetako, osteosintesiko, eta abarreko tresnak, adibidez) eskaera ugari egiten dira urtean zehar, erreferentzia ezberdinetakoak, zenbateko txikikoak, eta, askotan, kode generikoekin egiten dira. Ondorioz, zailagoa da kontsumoak eta prezioak aztertzea. Halakoetan, bada, bideraezina da egungo ereduarekin kontratatzea (irekia, esparru-akordioa) eta formula berriak behar dira (enkante elektronikoa, erosketa sistema dinamikoa, eta abar).
4. Zuzendaritza Nagusiko Erosketa Zerbitzua ez da autonomoa kontratazio-prozesuan; aitzitik, diziplina anitzeko Batzorde Teknikoaren mendekoa da, eta horrek zenbait zerbitzu koordinatzea eskatzen du Kontratuen Legeak markatzen dituen denbora-epe batzuetan –gehienetan ez dira nahikoak–. Gainera, zerbitzu medikoetako edo laborategietako buruek edo baliabide materialen arduradunek osatutako Batzorde horiek ez dira erosketa bateratuan aritzen bakarrik, baizik eta zentroetako espediente propioez ere arduratu behar dira; beraz, luzatu egiten da espedienteak prestatzeko eta berritzeko prozesuan.
5. Espedientea adjudikatu ondoren, esparru-kontratua SAPen kargatzeko prozesua atzeratzen da, eta, hortaz, zuzeneko erosketa gisa erregistratzen dira eskaerak. Kontratu bat ez da SAPera pasatzen harik eta bi alderdiek sinatu ondoren argitaratu arte. Halaber, atzerapenak gertatzen dira kontratua kargatu arte egin beharreko alde aurreko urratsen ondorioz: material-kode berriak irekitzea edo egun erabiltzen direnak aldatzea erreferentzia aldatuz, zentroetako biltegi guztietan parametrizatzea eta Info erregistroan prezioak eguneratzea; gainera, inplanteen kasuan, kontsignan dauden stockak eguneratu behar dira.
6. Batzuetan, kontratua amaitzen denetik hurrengo esleitzen den arteko epeak agerian uzten du zenbait artikuluren kasuan ezin dela horien erosketa luzatu.
Gainera, aurreikusitako epeak atzeratu egiten dira KEAOn jarritako helegiteek prozedura eteten dutelako. Beraz, ezin da lizitaziorik gauzatu abian dagoen espedientea amaitu arte.
7. Esleipenduna ez den hornitzaile bati egindako material-eskaera zuzenei dagokienez, intzidentziaren bat gertatzean egiten dira, esleipendunaren stock-a hausten denean denbora mugatu batez beste hornitzaile bati erosi behar zaio, edo hornitutako materialaren kalitatean arazoak daudenean pazientearen arretan arriskua sor dezakete.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1 PERTSONALEKO GASTUAK

2020an indarrean dauden 21 antolakundearen egiturazko plantilla guztira 27.700 lanpostuk osatzen dute. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 99 langile finko eta bitartekoen espedienteak aztertu ditu (3 ZEItan dauden 1.453 lanpostuetatik % 6,8 dira), baita behin-behineko estatutupeko langileen 34 espediente eta zuzendaritzako postuen 11 espediente ere, eta honako akats hauek azpimarratu ditu:

- *13 espedientetan gainditu egin da zerbitzu eginkizunetarako finkatutako bi urteko epemuga eta maila jasoagoko egitekoetarako finkatutako urtebeteko epemuga. Beharrezko diren plazak sortuta egiturazko plantilla egokitzea gomendatzen da, egitekoen asignazioak ez daitezen luzatu Osakidetzako Lan baldintzen akordioetan finkatutako denbora-mugaz haratago.*

ALEGAZIOA

Horren harira, gogora ekarri behar dugu zein den goragoko mailetako egitekoen esleipenaren iraupenaren arrazoa: zerbitzu-erakundeetan sortzen diren beharrei erantzutea, eskariari egokitzen zaion kalitateko osasun-arreta bat emateko. Horrenbestez, zerbitzu horiek ematen jarraitzeko beharrezko iraunaldia izaten dute, harik eta plantilla egokitzeko edo amortizatzeko/sortzeko prozeduren bidez dagokion lanpostu-zuzkidura gauzatu arte, betiere Jaurlearitza Kontseiluak lanbide-talde bakoitzeko onartutako gehieneko langile-muga gainditu gabe.

Nolanahi ere, eta aipatutako oharra azpimarratuz, zerbitzuen eskaerari erantzuteko behar estrukturaleri eta plantillari buruzko azterlanetan, egoera horiek kontuan hartzen dira eta, Kontuen Epaitegiak gomendatzen duen zentzuan, ahal den neurrian horiek plantillan erregularizatzeko ahalegina egiten da.

Azaldutakoaz gain, adierazi behar dugu hainbat azterlan egiten ari direla plantilla handitzeko espediente bat izapidetzea eragin dezaketen funtzioen eta/edo lanpostuen aldi baterako estaldura-egoerei buruz.

- *Ez dago jasota organo eskudunak aldi baterako zenbait osagarriri dagokionez egindako zerbitzu jakin batzuk justifikatu edo onartu dituenik, hala nola: guardia medikoak, maila jasoagoko zereginak, txandakotasuna, gaueko lana, jaiegunak, lokalizazioa, autokontzertazioa, etab., aplikatzekoak zaizkien berariazko erregulazioen arabera. Lanpostuak aldi baterako betetzeko (lan-poltsak) eta lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko egindako prozeduren justifikaziorik ere ez dago. Giza baliabideen aplikazio informatikoan langile-espediente bakoitzeko beharrezko informazio justifikagarri guztia erregistratzea gomendatzen da, langile bakoitzaren egiazko egoera gaurkotuaren arabera datuak egiaztatzeko bide emango duena.*



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Zerbitzuak egiaztatzeko dokumentazio faltagatik eta organo eskudunek onartu ez dituztelako betetzen ez diren ordainketa-kontzeptuei dagokienez, esan behar dugu jarduera hori jasotzen duen tresna Giza Baliabideen Kudeaketarako Sistemari integratuta dagoen karteldegia edo txanda-planifikatzailea dela, eta horrekin kudeatzen direla denborak.

Karteldegi horretan, alde batetik, jardueraren datu teorikoa jasotzen da –hau da, programatuta dagoena–, eta, bestetik, karteldegi errealean deritzon, benetan gauzatutako jardura eta gainerako gertakariak (absentziak eta presentziak) jasotzen dira, nominan eragiten dutenak. Pentsatzekoa denez, zentro bakoitzak kudeatzen ditu karteldegietako aldaketak, jarduteko prozeduren eta barne-protokoloen barruan. Horrela, benetan egindako jardura beti ordaintzen da nominan.

Adierazi bezala, Osakidetzako profesionalen lan-erregimen eta -egoera desberdinen parametrizazio-lan guztiak amaitzen ari dira, arduradunen eta Zuzendaritzaren kasuan kasuko baliozkotzeekin, OSAKIDETZAKOA (langilearen ataria) proiektuaren barruan, bertan zehaztutako izapidetze- eta baimen-bideari jarraituz, karteldegian jasotzen den jardura identifikatzeko, nominan ordain dadin. Proiektua oso aurreratuta dago eta sistemako jardura egiaztatzea errazten du.

Karteldegiak jardura erreala jasotzen du, eta, beraz, irtenbide formal posibleek ez dute laguntza-zerbitzuaren kalitatea urritu behar, ez eta aipatutako kudeaketa-tresna horrek denborak kudeatzeko duen sistema ere.

Adierazitakoa alde batera utzita, beste batzuetan jakinarazi dugun bezala, berretsi egiten dugu Giza Baliabideen Zuzendaritzak hainbat prozesu zehatz burutu dituela kontrol-elementuak aintzat hartuta. Prozesu horren baitan hainbat adierazle definitu dira, Osakidetzaren osoan zein zerbitzu-erakunde bakoitzean.

- *Nominak berrikustean ikusi da badirela zenbait lanpostu dagokion plantilla funtzionalean era horretan ageri ez direnak, edo Entearen lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan. Plantilla funtzionalak -urtero onartzen baitira- langileen egoera eta funtzio egiazkoetara egokitzea gomendatzen da, 186/2005 Dekretuan aurreikusitako lanpostuak aintzat hartuta, eta behar berrietara gaurkotzea.*

ALEGAZIOA

Nominako lanpostuak horiei esleitutako ordainsarien arabera definitu ziren, dagokien lanbide-taldearen, kategoriaren eta lanpostu funtzionalaren arabera. Giza Baliabideen Kudeatzeko sistemari, nominan lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizunen eta plantilla funtzionaleko lanpostuen arteko korrelazioa eta baliokidetasuna jasotzen dira, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan deskribatzen den bezala. Hala ere, Giza Baliabideen Zuzendaritzak planteatzen duen helburuetako bat da



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua berrikustea. Berrikuspen horretan, era berean, lanpostuen egokitzapena jasotzen da, funtzioei, ordainsariei eta izendapenari dagokienez, bai plantilla funtzionalean, bai nominan.

2022. urte honetan dagoeneko izapidetu da aholkularitza-enpresa bat kontratatzeko espedientea, lanpostu funtzionalei buruzko Dekretua berrikusteko formalizatuko diren lantaldeen metodologia-, antolaketa-, informazio- eta dinamizazio-lana babesteko, orain aipatutakoa aldatzen duen dekretua datorren urteko legegintza-egutegian sartzeko.

- *Osatek-en produktibitate-osagarriaren kontzeptuak 2020an 3,9 milioi euroren gastua eragin du, hau da, soldata eta ordainsarien zenbatekoaren % 28,2. Osagarria jasotzeko informatutako miaketen kopurua (1.599 erradiologo kasuan, eta txandako 10 gainerako langile asistentzialen kasuan) ez da eguneratu 2009az geroztik, eta informatutako miaketen batez bestekoa nabarmen handitu da azken urteetan:*

	Informatutako miaketen kopurua					
	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Erradiologo/urteko.....	2.979	3.093	3.055	2.888	3.037	(*) 2.453
Gainerako langileak/txandako..	18	18	18	18	18	(*) 15

Aurreko fiskalizazioetan adierazi den eta 2007-2009 akordioek xedatzen duten bezala, aipatutako parametroak (informatutako miaketen kopurua) aldatu egin beharko dira erabilitako ekipoen prestazio eta eraginkortasun handiagoak konpentsatzeko; beraz, lehen aipatutako zifrak eguneratzea eta produktibitateagatiko pizgarriaren kalkulua benetako batez besteko zifretara egokitzea gomendatzen da.

ALEGAZIOA

Kategoria bakoitzari dagozkion zenbatekoak hitzarmenean ezartzen dira, eta, erradiologoek kategorian, haietako bakoitzak sinatutako eranskinetan. Beraz, zenbateko horiek eguneratu edo aldatu ahal izateko, hitzarmen kolektibo berri bat onartu behar da.

Bestalde, ikus daiteke, batetik, ordainsari finakoaren eta aldakorraren arteko banaketa-ehunekoak aldatu egin dela, eta bestetik, zati aldakorra murriztu egin dela eta murrizketa hori bat datorrela pazienteen kopuruak izan duen beherakadarekin.

Hori dela eta, ez-betetzea ezabatzea eskatzen dugu.

- *Osatek SAn 2020an ordaindutako ordainsariei dagokienez, aurreko fiskalizazio-txostenetan azaleratu genituen zuzendu beharrekoek bere horretan diraute: lurraldeko arduradunei gainerako erradiologoek aldean miaketa bakoitzeko ordaindutako zenbatekoan dagoen aldea, erradiologo baten oinarritzko soldata*



hitzarmeneko tauletara ez egokitzea eta teknikariei oinarrizko soldataren % 2ren urteko ekoizpen osagarria ordainsari finko modura ordaintzea; horrek praktikan indarreko ordainsari-tauletan finkatutako ordainsaria gainditzen duen kopurua jasotzea dakar.

ALEGAZIOA

“Lurrelde-buruei miaketa bakoitzeko ordaindutako zenbatekoaren eta gainerako erradiologoei ordaindutakoaren arteko aldea, eta urteko ekoizpenaren % 2ko osagarria ordainsari finko gisa ordaintzea” oharrari dagokionez, Kontuen Auzitegiko Epaiketa Atalak 2018an egindako 2016ko fiskalizazio-txostenari buruzko Behin-behineko Likidazio Aktan adierazitakoa azpimarratu nahi dugu, eta adierazi nahi dugu zenbateko horiek 2001. urtetik aurrera sinatutako Hitzarmenen harira hartu diren erabakiek babesten dituztela. Hitzarmen horiek bete egiten dituzte Jaurlaritzak negoziazio kolektiboari buruz hartutako jarraibideak.

Hori dela eta, gabezia ezabatzea eskatzen dugu.

- *Gainera, Osatek SAren hitzarmenak “Antzinatasun” kontzeptuan izaera kualitatibo eta kuantitabo aldetik hobekuntzak jasotzen ditu; baita zenbait plusetan ere, EAEko Administrazio orokorrari eta erakundeen administrazioari, eta Osakidetzari zehazki, ezargarria zaionarekiko. Gomendagarria litzateke ahal den neurrian nominako kontzeptuak berdindu eta gaurkotzea eta oro har, indarreko Hitzarmenaren baldintzak, 2007an izenpetutakoa baita.*

ALEGAZIOA

“Antzinatasuna” kontzeptuan eta bestelako plusetan jasotzen diren hobekuntza kualitatibo eta kuantitatiboak hitzarmen kolektiboan ezartzen dira, enpresaren eta langileen ordezkarien arteko negoziazio askearen emaitza gisa. Hitzarmenak ez du loturarik ordezkari sindikalen, EAEko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren eta Osakidetzaren arteko negoziazioarekin. Hala, aurreko puntuan adierazitakoa errepikatzen da, hots, sinatutako hitzarmenek Jaurlaritzak hartutako gidalerroekin bat egiten dutela negoziazio kolektiboari dagokionez.

Hori dela eta, ez-betetzea ezabatzea eskatzen dugu.

- *Osatek SAn badira 2020ko abenduaren 31n produkzioaren gorabeheren ondorioz luzatu diren aldi baterako kontratuak eta horiek desitxuratu egiten dute hasierako kontratu mota. Gainera, aldi baterako kontratuak kateatzea lotura mugagabe ez finko bihur daiteke, harik eta lanpostua arauz betetzen den arte. Txosten hau idatzi dugun datan gauzatzeko dago 2020ko aurrekontuan onartutako egiturazko plantilla betetzeko deialdia.*



ALEGAZIOA

"2020ko aurrekontuetan onartutako egiturazko plantilla betetzeko deialdiak egiteke jarraitzen duela" dioen oharrari dagokionez, 2020an onartu zela kontuan hartuta, urte horretan langileen ordezkariekin hainbat bilera egin ziren deialdiaren proposamena negoziatzeko (zuzkidura, oinarriak...). Bilera horiek akordiorik gabe amaitu ziren, eta, beraz, proposamena administrazio-kontseiluari aurkeztu zitzaion. 2020an, Administrazio Kontseiluak, alarma-egoera sanitarioagatik eta lehentasunezko beste gai batzuk zeudela eta, ez zuen gai hori jorratu 2021eko martxoko bilerara arte, eta aurkeztutako proposamena onartu zuen. Data horretatik aurrera, deialdiaren zirriborroa egiten hasi da, eta 2021aren amaieran erantsi zaie arauan onartutako prozesuei, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuei, alegia. Gaur, bete beharreko lanpostuen kopurua eta deialdiaren oinarri orokorrak onartu dira.

Hori dela eta, ez-betetzea ezabatzea eskatzen dugu.

III.2 KONTRATAZIOA

- *Osakidetzako aztertutako espedienteetan (ikus A.3) honako gorabehera hauek azaleratu dira:*
 - *Guztira 34,9 milioi euroan esleitutako 23 espedienteetan -16 hornidurakok, 5 zerbitzukoak eta 2 zerbitzuen emakidakoak (61etik 79ra eta 81etik 84ra bitarteko espedienteak), ez da justifikatzen lizitazioko oinarritzko aurrekontua merkatuko prezioetara egokitzen dela, eta ez dira kostuak eta bestelako gastuak xehakutzen.*

ALEGAZIOA

61.etik 63.era arteko espedienteen kasuan, banakatu egin dira aurrekontuan lote ezberdinak egon direnean. Bestalde, aurrekontuak unitateko prezioak oinarri hartuta zehaztu dira, eta Osakidetza saiatu da prezio horiek merkatuko prezioen arabera izatea. Ildo horretan, SPKLren 102.4 artikulua aukera ematen du entregatzen diren unitateei dagozkien unitateko prezioak erabiltzeko; beraz, ulertzen da ez dela beharrezkoa zuzeneko eta zeharkako kostuak eta adjudikaziodunak egin ditzakeen bestelako gastuak banatzea.

64-79. eta 81-84. espedienteetan, detektatutako gabezia egiazkoa da, baina Epaitegiak aztertutako espediente bakoitzean egindako kalkuluak egokiak dira merkatuko prezioen arabera eta den-denak adjudikatu dira. Bat bera ere ez da hutsik geratu lizitatzailerik egon ez delako, beraz, zuzeneko eta zeharkako kostuen eta bestelako gastuen banakapenik gabe ere, Osakidetzak bete du SPKLren 100. artikuluan zehaztutako betekizuna.

Gabezia hori lizitazio-prozedurak hobetzeko helburuen barruan dago, eta gertakari hori zuzentzeko behar diren neurriak hartzen ari gara.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *Guztira 18,4 milioi euroan esleitutako zerbitzuetako 7 espedientetan (61, 62, 63, 64, 67, 72 eta 79 zk. espedienteak) ez da jaso prezio irizpidea balioztatzeko baliatutako formularen justifikazioa.*

ALEGAZIOA

Egia da adierazitako espedienteetan prezioaren irizpidearen justifikazioa oso modu orokorrean dagoela formulatuta; hala ere, SPKLren 146. artikulua araberaz ezarri da; hala, formulen bidez ebaluatu daitezkeen objektibotasuna lehenetsi da balio-judizioetan oinarritutako aldean, eta tratu-berdintasuna bermatuta geratzen da, ez neurtzeko lizitatzailen esperientzia, baizik eta eskaintzaren kalitatea eta eskaintzaren egokitasuna kontratuaren azken xederako.

Nabarmendu behar da irizpideak kontratuaren xedearen ezaugarriak kontuan hartuta daudela zehaztuta, produktuaren edo zerbitzuaren berezko ezaugarriak baloratuta eta eskaintzarik onuragarriena lortze aldera.

- *Guztira 5,3 milioi euroan esleitutako hornidurako 3 eta zerbitzuko 2 espedientetan (66, 71, 73, 81 eta 83 zk. espedienteak), aurreikusitako aldaketek ez dituzte modu argi eta zehatzean, zalantzarik gabe, zehaztapenez eta objektiboki egiaztagarriak izateko baldintzak betetzen.*

ALEGAZIOA

Hain zuzen ere, aurreikusitako aldaketak modu orokorrean xedatu dira, eta Osakidetzak beharrezko neurriak hartu ditu detektatutako gertakaria zuzentzeko.

- *2,4 milioi euroan esleitutako hornidura-espediente batean (66 zk. espedienteak), balio zenbatetsiaren kalkuluak ez du aurreikusitako aldaketen zenbatekoa jasotzen.*

ALEGAZIOA

Egia da, espedienteetan ez da sartu aldaketen zenbatekoa, ez baitzegoen aurreikusita administrazio-klausula partikularren agirian, eta administrazio-klausula berezien agiriaren 4. klausula espezifikoan, balio zenbatetsiari buruzkoan, ezabatu egin da BEZik gabeko balio zenbatetsiaren gaineko zutabea.

Ildo horretan, administrazio-klausula berezien agiriaren 16. klausula espezifikoak ezartzen du aurreikusitako aldaketa kasu bakarrak direla kontratu-lagapena edo kontratistaren ondorengotza.



- *1,5 milioi euroan esleitutako hornidura-espedita batean (76. espedita), balio-judizio baten mende dauden esleipen-irizpideen definizioa eta ebaluazioa oso orokorrak dira, ez baitira zehazten baloratu beharreko alderdi zehatzak. Txosten teknikoak eta, ondorioz, esleipen-ebazpenak ez dituzte justifikatzen aurkeztutako eskaintzei esleitutako puntuazioak.*

ALEGAZIOA

Bai, akatsa zuzena da, eta Osakidetza hobekuntza-helburuen artean dago.

- *Onkologikoa osasun-zentroko kafetegiaren eta vending makinaren errentamendu-kontratua, 2017ko abuztuaren 9koa eta 2020an mugaeguneratua, beste 3 urtez luzatu da isilbidez, kontuan hartu gabe SPKLn xedatutakora egokitzeko atxikimendu-hitzarmena sinatu izanaren ondorioz dagokion kontratu-erregulazioa.*

ALEGAZIOA

Kafetegiaren errentamendu-kontratuari dagokionez, Onkologikoa Fundazioan % 0,46 da, Fundazio pribatu gisa indarrean dagoen kontratazio pribatuko arauditik Kontratazio Publikoari buruzko Legearen kontratazio-araudira egokitu beharreko guztiaren barruan.

Puntu hori eta trantsizioa progresiboki egin behar delakontuan hartuta, 2020ko programazio-egutegian kontuan hartu da garrantzi eta bolumen handiagoko beste espedita batzuei heltzerakoan lehentasunak ezartzea.

- *Onkologikoak ez diren profesional pribatuekin egindako kanpo-kontsulter 4 errentamendu-kontratu daude indarrean. Onkologikoa Fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, aldi baterako mantendu zitezkeen, hitzarmena sinatu aurretik hartutako kontratu-betebeharrek irauten zuten bitartean; ordea, 2019an aurreabisu bidez deuseztatu behar ziratekeen.*

ALEGAZIOA

Zerbitzu profesionalen errentamenduari dagokionez, nabarmendu behar da atxikimendu-hitzarmenak hirugarren klausulako 2. apartatuan ezartzen duela Onkologikoa zentro sanitarioak asistentzia onkologiko pribatua eman ahal izango duela beste edozein erakunde edo pertsona fisikoren kontura.

Era berean, 3. apartatuaren arabera, zentroak asistentzia-jarduera ez onkologiko pribatuari eutsi ahal izango dio aldi baterako, hitzarmena sinatu aurretiko kontratu-betebeharrak dauden bitartean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bi apartatuek justifikatzen dute 2020-12-31n bazirela zerbitzu-prestazioagatiko kontratuak, horietako bati dagokionez izan ezik; izan ere, kontratu-harremana hutsaltzeko komunikazioan izandako akats formal baten ondorioz, beste 5 urtez luzatu behar izan zen, merkataritza-kontratuan bertan jasotzen zen bezala.

- *Ekonomia-kontrolerako bulegoak aztertutako kontratazio espedienteak berrikusi ditugu eta honako gorabehera esanguratsu hauek nabarmenduko ditugu:*
 - *Donostialdeko ZEIren hemodinamikako materiala erosteko espedientean, 1,5 milioi euroan esleitutakoan, baldintza-agiriak aukera ematen du lote bakoitza partekaturik esleitzeko 1,3 milioi euroan esleitutako 9 lotetan.*
 - *Donostialdea ZEIk izapidetutako 13 espedientetan, 5,3 milioi euroan esleitutakoetan, kontratuaren klausula espezifikoetan ageri den lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak ez du BEZa barne hartzen.*
 - *6 milioi euroan esleitutako 3 ZEItako 9 espedientetan, pleguaren balio zenbatetsia ez da SPKLn aurreikusitakoaren arabera kalkulatu.*
 - *9 ZEItako 25 espedientetan, 11,4 milioi euroan esleitutakoetan, pleguek ez dute ezartzen neurritz kanpo baxuegitzat jo beharreko eskaintzak identifikatzeko parametrorik.*
 - *Esklusibotasunagatik publikotasunik gabeko espediente negoziatu gisa izapidetutako 3 ZEItako 5 espedientetan, 1,3 milioi euroan esleitutakoetan, ez da behar bezala egiaztatu esklusibotasun hori.*

ALEGAZIOA

Gertakari horiek kontratazio-prozedurak hobetzeko helburuen barruan daude, eta lanean ari gara Osakidetza zerbitzu-erakunde guztietan ezartzeko beharrezko neurri zuzentzaileak.

- *Gainditu egin da aztertutako 195 luzapen-espedienteetatik 130etan legezko gehieneko muga, 36tan pleguetan aurreikusitako luzapen kopurua, eta 43tan hasierako kontratuaren ezaugarriak aldatu dira.*

Azken intzidentzia horri dagokionez, eta kontuan hartuta horrelako egoerak saihesteko lanean ari direla jada, esan behar da 2020a pandemiaren lehen urtea izan zela eta lehenengo sei hilabeteak kudeatzea bereziki zailak izan zela, bai asistentziaren arloan, bai kontratazio-zerbitzuen arloan; izan ere, larrialdi-egoeraren ondorioz, nahitaezkoa izan zen ahalegin guztiak bideratzera koronabirusari aurre egiteko ezinbestekoak gaien hornidura lortzera, eta egoera horren ondorioz, kontratuak ezohiko baldintzetan luzatu behar izan ziren.



ABREVIATURAS

AM	Acuerdo Marco.
CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
GOVA	Gobierno Vasco.
HU	Hospital Universitario.
INSALUD	Instituto Nacional de la Salud.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público.
OCE	Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco.
OPE	Oferta Pública de Empleo.
OSI	Organización de Servicios Integrada.
PANAP	Poder Adjudicador No Administración Pública.
RM	Resonancia Magnética.
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri Kontuen Euskal Epaitegia.



I. INTRODUCCIÓN

El TVCP/HKEE conforme a lo establecido en la Ley 1/1988 que lo regula y a su Programa Anual de Trabajo, ha realizado la fiscalización de las Cuentas Anuales del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio Vasco de Salud (en adelante, Osakidetza) correspondiente al ejercicio 2020, que abarca los siguientes aspectos:

- Legales: cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas relativas al presupuesto, endeudamiento, operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, concesión de subvenciones y ayudas públicas e ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si las Cuentas se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

Además se ha fiscalizado Osatek, S.A., sociedad pública de la que Osakidetza posee el 100% del capital social. Su objeto social es la prestación y provisión de servicios de apoyo al sistema sanitario y social vasco, especialmente aquellos que tengan un carácter corporativo o cuya aplicación conlleve procedimientos de alta tecnología; y la docencia e investigación en el régimen y condiciones que se determinen en el marco de la política sanitaria global del País Vasco.

Por otra parte, hemos revisado los papeles de trabajo que soportan los informes de auditoría de las cuentas anuales y los de cumplimiento presupuestario y de legalidad de Osakidetza y Osatek, S.A. efectuados por firmas externas. Asimismo, hemos revisado los informes sobre el cumplimiento de la normativa legal aplicable realizados por la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco.

Los trabajos de fiscalización se han desarrollado de acuerdo con los principios y normas de auditoría aplicables al sector público, realizándose aquellas pruebas selectivas, revisión de procedimientos y demás técnicas habituales de auditoría que se han considerado necesarias en cada circunstancia, para soportar la opinión contenida en este informe.

Osakidetza, adscrita al Departamento de Salud de la CAPV, y competente en materia de sanidad, tiene personalidad jurídica propia y goza de plena capacidad de obrar para la provisión de servicios sanitarios mediante las organizaciones de servicios públicos dependientes del mismo, sin personalidad jurídica pero con autonomía de gestión.

A 31 de diciembre de 2020, además de la Dirección Central, Emergencias y el Centro Vasco de Transfusiones y Tejidos Humanos, hay 13 organizaciones de servicios integradas “OSI”, 3 organizaciones de salud mental y 2 hospitales:

- Generales: OSI Araba, Bilbao-Basurto, Donostialdea y Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces.
